

**HERRIAK
HERRIARENTZAT
EGINAK**

ataria

2019-07-26
1.099. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus



**Ibarrako
Udala**

IBARRAKO JAIK 2019 ondo pasa!



Gozatuz gozarazi

Kulturaz, kirolaz eta parrandaz beteko dira eskualdeko txokoak, uztaila bukaerako eta abuztuko festak iristearekin batera. Kalera atera eta orduak minutuak balira bezala igaroko dira. Aspaldi ikusi gabeko lagunekin egoteko uneak heldu dira eta egon ezin dutenez oroitzekoak.

Bihartik aurrera ez da aspertzeko betarik izango. Hamasei herritan, haur, gazte eta helduentzako ekitaldiak daude prest eta aldizkari honetan aurkitu ditzakezu guztiak, gustukoena duzuna aukeratzeko. Eta ez egin zalantzarik. Hurbildu zaitez nahi duzun guztietara, bertakoek gustura hartuko zaituzte eta. Festa herrikoiak dira guztiak, herritik eta herriarentzat antolatutakoak, eta horretarako, beharrezkoa da bertakoen parte hartzea.

Batzuek festa egin dezaten, ordea, beste batzuek lan egin behar, bai aurretik, bai festetan, baita bukatutakoan ere. Gogoratu jai hauek antolatzeko astero bilerak egin dituztenekin, bazkariak nahiz afariak prestatzen ariko direnekin edo haur jolasak antolatu dituzten gazteekin. Eta eman eskerrak, ez da ezer kostatzen eta! Horietako batzuk ezagutu ditugu astekari honetan, baina dozenaka geratuko dira ezkutuan.

Eta gu ere ez gara geldirik egongo. Herriz herri ibiliko gara kamera eskuan, eta baliteke www.ataria.eus webgunean sartu eta eta zeu ere bertan egotea. Ez al da festetako momentuak berriz bizitzeko eta betirako gordetzeko modu ederra?

Bikain pasatzea. Hori izaten da herriko festen hel-

burua eta bertara gerturatzen diren guztiei opa dieguna. Beraz, ez ezazu eragotzi. Ez dugu eraso sexistarik ez bestelakorik onartuko. Ez beti da ez!

Egunerokotasunetik ateratzeko giltza izaten dira festak. Hala ere, horrek ez du esan nahi gehiegikerietan erori behar denik. Substantzia kaltegarriak baztertzen ikasi eta jokatu errespetuz, bai herriarekiko eta baita herritarrekiko ere.

Hori bai, bizi momentuak. Bakarrik, familiarekin edo lagunartean eta egunez nahiz gauez egin barre eta probatu

orain arte ausartu ez zaren hori. Aprobetxatu festak datorren urtean berriro etorriko ez balira bezala. Eta gu ere hurrengo urtean berriro itzuli gaitezen, zure laguntza ezinbestekoa izango da, Atarikideei esker egin dezakegulako lan hau. Izan ere, egiten duzuna gara eta izango gara.



IRATI URDALLETA LETE
KAZETARIA

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **KOORDINATZAILEA:** Rebeka Calvo Gonzalez
KUDEATZAILEA: Iban Urdapilleta Alkizalete **TELEFONOA:** 943 655695 **WEBGUNEA:** www.ataria.eus **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
POSTA ELEKTRONIKOA: ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 · 687 4100 33 · 107.6 FM **PUBLIZITATEA:** 661678818 · publi@ataria.eus

ATARIAk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.



TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA, SM-KO KIDEAK:

BERTAKO
HEDABIDEAK



galtzaundi

berria

Txolasre

Tolosaldeko gizarte eragileak




URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 80 €

TOLOSALDEKO ATARIA DIRUZ LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amezketza, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil



Gipuzkoako Foru Aldundia



Azaleko irudia:
Ibai Luque

Testuak:
Irati Urdalleta Lete

ALTZOKO FESTAK

AUZOLANEAN HERRIARENTZAT ANTOLATUAK

Berrikuntzaren bat sartu badute ere, betikoa oinarri hartuta datoz Altzoko San Inazioak. Haur, gazte eta helduentzako ekitaldiz betetako programa izango dute uztailaren 27tik 31ra.

Altzoko San Inazioekin hasiko da abuztuan eskualdean festaz festa egin daitekeen ibilaldia. Festa batzordetik diotenez, «berrikuntzaren bat sartuz, baina urterokoa mantenduz datoz aurtengoak». Horretarako, lan ugari egin behar izan dute bertako herritarrek. Festa batzorde bat daukate eta otsaila edo martxo aldera hasten dira bilerak egiten. «Auzolanean egiten dugu, bakoitzak ardura batzuk hartuta», azaldu dute.

Uztailaren 27an murgilduko dira festan. «Jende desberdinarentzako gauzak jartzen saiatzen gara: gazteentzat, umeentzat, helduentzat...», diote. Lehen egunean, txupinazoa eta marrazki lehiaketako sari banaketa

izango dituzte, baita Artea dantza taldeko haurren emanaldia ere. Gosetzerako, paella jateko moduan izango dira, 12:00etan hasiko baita prestaketa. Arratsaldean, helduak elektrotxula taldearekin kalejiran dabilzan bitartean, txikienak entzierroan korrika ariko dira. Ondoren, poteoan jarraituko dute, Eli Pagola eta Mikel Artola bertsolarien laguntzarekin eta norbait egarriak geratzen bada, sagardo dastaketan asetzeko aukera izango du. Festa batzordekoek adierazi dutenez, jende dezente inguratzen da eta giro ona sortzen da. Ondoren, Gabezin taldearekin erromerian dantzan ere ariko da zenbait.

Hurrengo egunean, erretiratuak izango dira goiztiarrenak, hamaiketa-

koa eginez. Jarraian, ikuskizunik ez da faltako. Aizkoran ariko dira Alkizaletxe eta Urteaga, Aristegi eta Astondoaren aurka eta harri-jasotzen Mikel Lopeteggi *Urria*. Bazkalondoren, punteriarik onena nork duen ikusiko da plater hausketarekin. 17:00etan emakumezkoen nahiz gizonezkoen arteko pilota partidak jokatuko dituzte, eta bezperan bezala, entzierro txikia egingo dute 19:00etan. Ordu laurden beranduago hasiko da aurtengo berrikuntza nagusia: Xabi Solanoren kontzertua. Afaltzeko zahagi ardoa egongo da eta ondoren ere erromeriarik ez da faltako Fan&GO taldearen kontzertuarekin.

Astea lasai hasiko dute eta ekitaldi bakarra antolatu dute astelehenerako: Artea eta Alurr dantza taldeko ikasle-emanaldia.

Asteartean ekingo diote festen bigarren txanpari. Haurrek esnatuko dute eguna jolasekin eta hamaiketakoarekin. Arratsaldean, berriz, ume nahiz helduentzako aukera egongo da mus txapelketarekin eta antzerkiarekin. 18:00etan, frontoi zaharreko pilota txapelketako finalak jokatuko dituzte. Aurreko egunetan bezala, entzierro txikia egingo dute eta aldarrikatzeko tarte ere hartuko dute 20:30ean presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa eginez. Ondoren, lehengo urtean berreskuratu zuten tradizioari jarraituko diote, herri afarian zikiroa janez eta 00:00etan eresia egingo dute. Ondoren, Sustrajah, Zitzada+ Erlantz eta



Frontoi Zaharreko XXIII. Pilota Txapelketako finalak jokatuko dituzte. MIKEL IRAOLA

Bassagain taldeen kontzertuak entzuteko aukera egongo da.

Eta festetako azken eguna izango da San Inazio eguna. 09:00etan hasiko da goiz eresiarekin eta ordubete beranduago meza edukiko dute. 11:00etan gurpilen gainean jarri eta aspaldian galduta egon den proba berreskuratu dute, haurrentzako txirrindulari lasterketa eginez. «Urte asko da egiten ez zela, baina aurten berriro antolatu

dugu», diote. Jarraian, toka txapelketa ere egingo da, txakolin probaketa-rekin batera. Arratsaldean izango da aurtengo azken nobedadea. Hain zuzen ere, Alurr dantza taldeak *Irradak* ikuskizuna eskainiko du, Batzarremuñoko plazan. «Iaz edo aurten estreinatutako emanaldia da», azaldu dute. Aurreko egunetan bezala, asteazkenean ere entzierro txikia egingo dute 19:00etan.

Jarraian, Drindots taldeak saio bi-koitza eskainiko du entzierro txikiaren ondoren eta 00:00etan. Tartean, 22:30ean, bertso jaialdiaz gozatzeko aukera egongo da. Nerea Ibarzabal, Miren Artetxe, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Unai Mendizabal ariko dira kantari.

Kantuan, datzan edo parrandan, ondo ospatuta utziko dituzte altzotarrak San Inazioak.



Artea dantza taldekoek emanaldia eskainiko dute. JOSU ARTUTXA



Paella prestatuko dute lehen festa egunean. JOSU ARTUTXA

ALTZOKO FESTAK

UZTAILAK 27, LARUNBATA

11:30. Txupinazoa eta marrazkilehiaketako sari banaketa.

Ondoren. Artea dantza taldeko haurren emanaldia.

12:30. Paella prestateta.

Ondoren. Bazkaria.

Arratsaldean. Elektro txufila taldearekin kalejira.

19:00. Entzierro txikia, eskolatik abiatuta.

Ondoren. Bertso triki poteoa, Eli Pagola eta Mikel Artola bertsolariekin.

21:00. Sagardo dastaketa.

Ondoren. Gabezin taldearekin erromeria.

UZTAILAK 28, IGANDEA

11:00. Erretiratuen hamaiketakoa.

12:30. Herri kirolak. Aizkolariak: Alkizaleta-Urteaga/ Aristegi-Astondoa. Harri-jasotzailea: Mikel Lopetegi Urria.

15:30. Plater hausketa.

17:00. Pilota partidak: Uxue Olano-Nagore

Murua / Maddi Iturrioz-Uxue Aranburu;

Iker Zubeldia-Amets Uzkudun/

Unai Altuna-Pello Olano; eta

Iraitz Zubizarreta-Enaitz Aizpitarte/

Julen Alberdi-Aratz Irazustabarrena.

19:00. Entzierro txikia.

19:15. Xabi Solanoren kontzertua.

21:00. Zahagi ardoa.

Gauean. Fan&GO taldearekin erromeria.

UZTAILAK 29, ASTELEHENA

22:00. Artea eta Alurr dantza taldeko ikasleen emanaldia.

UZTAILAK 30, ASTEARTEA

11:00. Haur jolasak.

Ondoren. Haurren hamaiketakoa.

15:30. Mus txapelketa. Izen ematea 15:00etan hasiko da.

16:30. Haurrentzako antzerkia.

18:00. Frontoi Zaharreko Pilota Txapelketako Finalak.

Ondoren. Entzierro txikia.

20:30. Presoen eskubideen aldeko kontzentrazioa.

21:00. Herri afaria, zikiro jatea.

00:00. Eresia.

Ondoren. Kontzertuak: Sustrajah, Ziztada+Erlantz eta Bassagain.

UZTAILAK 31, ASTEAZKENA

SAN INAZIO EGUNA

09:00. Goiz eresia.

10:00. Meza nagusia.

11:00. Haurren txirrindulari proba.

12:30. Txakolin probaketa.

Tartean. Toka txapelketa.

18:00. Alurr dantza taldearen *Irradak* ikuskizuna, Batzarremuñoko plazan.

19:00. Entzierro txikia.

Iluntzean. Drindots.

22:30. Bertso jaialdia: Nerea Ibarzabal, Miren Artetxe, Maialen Lujanbio, Andoni Egaña, Amets Arzallus, eta Unai Mendizabal.

00:00. Drindots taldearekin erromeria.

LARRAULGO FESTAK



Pello Joxepe herrira jaitsiko da, abuztuaren 1ean. JOSU ARTUTXA

06 FESTARAKO AUKERA BIKOITZA

Bi aldiz murgilduko dira festan Larraulen: lehenengo San Estebanetan eta gero San Bartolome egunean. Batean zein bestean, egitarau oparoa izango dute larrauldarrek nahiz bertara hurbiltzen direnek.

Txupinazoa botaz eta Pello Joxepe jaitsiz ekingo diete festei Larraulen. Ondoren, buruhandiak aterako dituzte, musikaz lagunduta. Iluntzean, gazteenek izango dute festarako aukera, beraientzat prestatu baitute gazte kanpaldia. Gainera, etxetik kanpo afaltzeko aukera edukiko dute eta aspertu ere ez dira egingo, jolasak ere antolatuta baitituzte.

Hurrengo egunean, kanpaldiarekin jarraitzeko, gosaria izango dute gazteek. Jasotzen bezala, ematen ere badakite Larraulgo gazteek eta, kanpaldia-

ren ondoren, beraiek antolatu dieten altxorren bila jolasean ibiliko dira haurrak. Egunean zehar, txikienek jarraituko dute festaren protagonista izaten. 12:00etan aparrez inguratuko dira, apar festarekin, eta ondoren, bazkaldu egingo dute. Arratsaldean ere ez dira geldirik egongo, adin guztietarako puzgarriak egongo baitira. Haurrekin batera, helduagoak ere ibiliko dira festan, beraientzat antolatu den mus txapelketan. Egun osoa festan igaro ostean, indarrak berreskuratuko dituzte 21:00etan egingo den barrikotan. Ondoren, irudimena martxan ja-

rriko dute mozzorro gauean eta musikarik ere ez da faltako DJ Jo Ta Txorekin. Urteroko ohiturari segituz, parandazaleentzako baratxuri zopa ere izango da goizaldera.

Batzuk ajea pasa ezinik ari direla iritsiko da San Esteban eguna. Goizean, meza eta hamaiketako herrikoia izango dituzte, eta arratsaldean, berriz, herri kirolak. Herri afariaren aurretik, poteoa kantuan egingo dute eta afalostea musikaz alaituko du Patxuko nice taldeak. Amaitu ere musikaz egingo dute eguna. Horretarako, Marmoka taldea eta DJ Elepuntoren kontzertuak egongo dira.

Azken eguna izan arren, bete-betea izango da igandea ere. 12:00etan sagardo dastaketa egingo dute. Ondoren, herriko gaztetxoek txanda izango da, *Irria galdu zuen herria* antzezlanarekin egingo baitute. Paella herrikoian bazkaldu, bertso saiora joango dira larrauldarrak. Bertan bertsolari bikainak izango dituzte zain: Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Nerea Ibarzabal eta Unai Agirre. Festei dantzan emango diete amaiera, Izer eta Alabierren erromeriarekin.

San Bartolome egunez, besteak beste, hamaiketakoa, pilota eta frontenis txapelketak, sardina jatea eta trikitilariak izango dituzte.



Haurrentzat eta helduentzat prestatuko dute herri afaria. **JOSU ARTUTXA**



Aurten ere apar festa egingo da, umeen gozamenerako. **MIKEL IRAOLA**



Txupinazoaren ondoren, buruhandiak aterako dira. **JOSU ARTUTXA**



Herritarrek osatutako txarangak alaitzen ditu kaleak. **JOSU ARTUTXA**

LARRAULGO FESTAK

ABUZTUAK 1, OSTEGUNA

19:30. Txupinazoa eta Pello Joxeperen jaitsiera.

Ondoren. Buruhandiak musikaz lagunduta.

20:30. Gazte kanpaldia.

21:30. Gazte afaria.

Ondoren. Jolasak.

ABUZTUAK 2, OSTIRALA

10:00. Gosaria.

11:00. Herriko gazteek haurrentzat antolaturiko altxor bilaketa jokoa.

12:00. Apar festa.

14:00. Haurren bazkaria.

15:00. Puzgarriak adin guztientzat.

16:00. Mus txapelketa.

20:30. Barrikote herrikoia Urbeltz plazan.

Ondoren. Mozorro festa.

23:00. Jo Ta Txo DJ-a

03:00. Baratxuri zopa.

ABUZTUAK 3, LARUNBATA

11:00. Meza nagusia.

12:00. Hamaiketako herrikoia.

18:00. Herri kirolak.

20:00. Kantu poteoa.

20:30. Afaria egingo dute ostatuan umeentzako.

21:00. Herri afaria ostatuan.

23:00. Patxuko nice.

Ondoren. Marmoka taldea.

Jarraian. DJ Elepunto.

ABUZTUAK 4, IGANDEA

12:00. Sagardo dastaketa.

13:30. Irria galdu zuen herria

antzeziana, herriko gazteen eskutik.

15:00. Paella herrikoia.

18:00. Bertso saioa, herriko plazan: Maialen Lujanbio, Iker Zubeldia, Nerea Ibarzabal eta Unai Agirre bertsolariekin.

Arratsaldean eta gauean. Izer eta Alabier.

SAN BARTOLOME EGUNA

ABUZTUAK 24, LARUNBATA

11:00. Meza nagusia.

12:00. Hamaiketako herrikoia.

17:00. Pilota eta frontenis txapelketa herrikoiak.

Ondoren. Sardina jatea.

Arratsaldean eta gauean. Trikitilariak.

IKAZTEGIETAKO FESTAK



Manex Saez de Egilaz hainbat urtean ari da ikaztegieta festak antolatzen. IRATI URDALLETA

«FESTA PAREKIDEAK ANTOLATZEKO LANKETA BEREZI BAT EGIN DUGU»

MANEX SAEZ DE EGILAZ
ZINEGOTZIA

Abuztuaren 9tik 11ra, hiru eguneko festak antolatu dituzte Ikaztegieta. Iaz egindako berdintasun plana gainbegiratu eta emakumeen parte hartzea sustatu nahi dute.

Festa batzordean aritu izan da urte askoan Manex Saez de Egilaz. Orain, udalean sartu den arren, festei lotuta jarraituko du. Aurten ere, ahalik eta festa parekideenak lortzea izan dute helburu.

Festak antolatzen aritu zara orain arte eta aurten udalerako jauzia egin duzu. Festetan, lan desberdinen egingo al dituzu batean zein bestean?

Duela urte askotik festa batzordearen barruan egon naiz, orain dela aste batzuk sartu nintzen udallexean eta kulturako kargua hartu nuen. Orain, beste ikuspuntu batetik ikusten dira festak, karga gehiagorekin bezala. Ardura gehiago edukiko ditut, baina lantalde polita daukagu festa batzordean eta ondo funtzionatzen dugu. Gainera, aurreko zinegotziak ere dezentegintza egiten dit.

Udaleko zinegotzi izanda, nola biziko dituzu jaiak?

Udaleko zinegotzia izanda ere, lehen bezala biziko ditut festak. Ardurak dauzkagu, festa batzordean bezala. Hala ere, egia da ardurak ondo banatzen ditugula batzordeko kideen artean. Bakoitzaren lanak ondo zehazten ditugu eta horiek ondo betetzen badiugu, festak ondo joango direla pentsatzen dugu. Hala ere, beti geratzen zaizu barruan kezka moduko bat. Udalaren barruan edo kanpoan egonda, berdin-berdin biziko ditut festak, beste herritar batek bezala.

Kuadrillen Eguna eta San Lorentzo eguna batera ospatuko dituzue aurten.

Aurten hala tokatu da. Ostiraletik igandera izango dira festak eta San Lorentzo eguna larunbatean izango da. Kuadrilla Eguna ere larunbatean egi-

ten saiatzen gara, jendeak jai edukitzea. Nik uste dut festetako egun garrantzitsuena, San Lorentzoz aparte, Kuadrilla Eguna izaten dela. Jende gehiena ere hor elkartzen gara.

Lehen eguna, berriz, haurrei zuzendutakoa izango da.

Lehen ekitaldia txupinazoa izango da eta memoria tailerreko helduek botako dute aurten. Memoria tailerrean, adineko jendea elkartzen da astean bitan. Irakasle bat etortzen zaie eta ariketak egiten edo paseatzen ibiltzen dira. Erantzun polita izan du eta horregatik erabaki genuen beraiek botatzea txupinazoa.

Gainontzean, umeei zuzendutako eguna izango da lehenengoa. Goizean, zinta karrera izango dute, bazkaria, puzgarriak, merienda... Gainera, kontzertuak ere egongo dira.

Herritarrek nahiz kanpotarrek, zer da galdu behar ez dutena?

Nik uste dut, Kuadrilla Egunezko edozein. Bazkaria izaten da jendetsuena. Bestela, berritasun modura, futbol txapelketa ere antolatu dugu. Aurten, festa parekide batzuk antolatze aldera, udallexetik lanketa berezi bat egin dugu. Kirola nahiko maskulinoa denez, berdintasun plan baten barruan, etxetik etxera paperak banatu ditugu bereziki emakumeak gonbidatuz futbol txapelketan eta Kuadrilla Egunezko pilota txapelketan parte hartzeko.

Generoaren inguruko lanketa berezi bat egin duzue, beraz.

Bai. Aurreko urteetan ere egin izan dugu, eta lehengo urtean, indarkeriaren aurkako protokoloa martxan jarri zen. Aurten ere gainbegiratu bat eman eta hori aktibatze asmotan gaude. Aurreko urtera arte, gizonen pilotak partidak soilik izaten ziren eta orduan, saiakera bat egin zen bertso pilota mistoa egiteko. Aurten, berriz, gizonen partida bat eta emakumezkoen beste bat jokatu dira. Eskualdean maila oneko pilotari asko dauzkagunez, gizonen pilotaren denak eskualdekoak izango dira eta emakumezkoetan, bi eskualdeko eta beste biak ingurukoak. Horregatik, bi partidak maila oso onekoak izango dira. Kirolean ere berdintasunaren inguruko saiakera bat egin dugu.

IKAZTEGIETAKO FESTAK

ABUZTUAK 9, OSTIRALA

UMEEN EGUNA

12:00. Txupinazoa.

Ondoren. Herritarren dantza saioa eta buruhandiak.

12:30. Zinta lasterketa.

13:30. Umeen bazkaria.

15:00–18:00. Puzgarriak.

Ondoren. Merienda.

18:00. Futbol txapelketako finala.

19:15. Patata tortilla txapelketa.

Tartean. Toka txapelketa.

21:00. Afaria.

23:30. Ostabe eta Bedeinkatuak taldeak.

ABUZTUAK 10, LARUNBATA

SAN LORENTZO ETA KUADRILLEN EGUNA

11:30. Frontoi Txikiko Txapelketako finalak.

12:30. Kuadrillen arteko bazkari prestaketa.

14:30. Kuadrillen bazkaria.

Ondoren. Mus Txapelketa.

17:30. Trikipoteoa.

19:30. Tokan 2 la polla.

Ondoren. Kuadrillen arteko afaria.

23:30. Fan&GO.

ABUZTUAK 11, IGANDEA

12:00. Txakolin dastaketa.

15:30. Pilota partidak:

Labaka–Irazustabarrena /

Urbietea–Telletxea.

Larrarte–Mendizabal /

Mendizabal–Orbegozo.

21:00. Herri afaria.

23:30. Elizagoien ahizpak.

Ondoren. AfterLontxa.



Kuadrilla Eguneako bazkaria izan ohi da ekintzarik jendetsuenetakoa. JOSU ARTUTXA



Haurrek jolaserako aukera izango dute ostiralean. JOSU ARTUTXA


Ikaztegieta
Udala

Ondo pasa festak!
Ez ezetz da 

LAGUNEN
txiste/txistola
MITXISTE!
LAGUNEN DASTA

MALLOT
Hori Neska
noizko?

TITIA
pornean bizi.
KALCHA EZZ?

BERASTEGIKO FESTAK



Dantza egiteko tradizioa mantentzen dute Berastegin. MIKEL IRAOLA

KIROLA, KULTURA ETA PARRANDA

Abuztuaren 7an lehertuko da suzeria Berastegin eta aurretik izango dituzte ekimenenez betetako bost egun. Pentatloia, bingoa eta emakumeen pilota partidak izango dira berrikuntza nagusiak.

Abuztuaren 7an ekingo die Salontzo festei berastegiarrak, frontenis txapelketako finalekin. Ordu eta erdi beranduago, 12:00etan, lehertuko da festa txupinarekin batera, eta areto futboleko neska alebinek eta mutil infantilek izango dute aukera pregoia botatzeko. Festa batzordeko Garazi Otxandorenak azaldu duenez, infantilak txapeldun izan dira Euskadiko areto futboleko txapelketan eta alebinak Gipuzkoakoan. «Behin garaipen hori lortuta, sari moduan, pregoia botatzeko aukera beraientzat izango da», dio.

Otxandorenaren arabera, adin gutxietarako ekintzak antolatzen saiatzen dira, eta herritarrek herritarrentzat nahiz kanpotik hurbiltzen direnentzat antolatzen dituzte. Lan guzti horren

ondorioa da bost eguneko programa bete-betea. Txupinazoaren ondoren, pilota eta pala partidak nahiz herri kirolak eta pentatloia egongo dira. Hori izango da aurtengo berrikuntzetako bat. Horrela, harriari tiraka, harri-jasotzen, aizkoran, korrika eta txingetan arituko dira berastegiarrak. Indarrak berreskuratzeko, herriko batukadarekin perku poteoa eta herri afaria egingo dituzte. Ondoren, Salontzotako kartel lehiaketako eta leiho, balkoi eta lorategi lehiaketako sariak banatuko dituzte eta gaua DJ Modestok alaituko du.

Hurrengo eguna umeei zuzendutakoa izango da. Goizez nahiz arratsaldez puzgarriak eta jolasak izango dituzte, eskola atarian eta apar festa ere bertan egingo dute 17:00etan. Gaine-

ra, *Walkman* ikuskizuna eskainik dute Ganso&Cia clown taldekoek eta Fan&Goren erromeriaren tarteetan, zahagi ardoa eta Alurr dantza taldearen emanaldia egongo dira aukeran.

Ostirala, berriz, kuadrillen gozatze-koa izango da. «Gazte eta ez hain gazteentzat dago aukera», dio Otxandorenak. Goizean goizetik, patata tortilla lehiaketa egongo da baita haurrentzako toka eta bizikletarekin zinta-jokoa ere. Bukatutakoan, tortillak dastatuko dituzte, txakolinarekin lagunduta. Eguneko ekitaldi garrantzitsuenetakoa eguerdi aldera izango dira: kuadrillen bazkaria eta jolasak. Arratsaldean ere parrandan igarotzeko aukera egongo da sagardo dastaketarekin nahiz zahagi ardoarekin. Orduan etorriko da aurtengo berrikuntzetako baten txanda: bingoa. «Gazte festetan egin genuen, eta arrakasta eduki zueenez, festetan ere egitea erabaki dugu», dio festa batzordeko kideak.

Eta abuztuaren 10ean iritsiko da egun handia. Salontzo egunez, mountain bike igoera egingo dute eta 12:30ean pilota partidak jokatuko dituzte lau eta erdian edo binaka. Hor egongo da aurtengo beste nobedade bat. Izan ere, orain arte gizonak soilik ikusi zitezkeen kantxan, baina aurtan emakumeak ere bertan izango dira. Arratsaldean, herri kirolak egingo dituzte baita tradizio handia duten San Juan dantzak eta helduen dantza soka ere. Behin dantzak amaituta, zahagi ardoa egongo da plazan eta bertso saioa ere leku berean izango da. Hala nahi duenarentzat, parrandarako aukera ere egongo da Laket taldearen kontzertuarekin.

Azken eguna izanda ere, igandean festan jarraituko dute Berastegin. Goizero egin ohi den goiz deiaren ondoren, herriko aurrebenjaminak, benjaminak, alebinak eta infantilak pilotan ariko dira. Arratsaldean ere haurren txanda izango da, dantza, txistu eta trikiti emanaldiarekin. 19:30ean, *Epa!* ikuskizuna eskainiko dute eta ondoren, zahagi ardoa izango da. 22:30ean *Dantzerti* emanaldia egingo dute herritarrek, dantza eta antzerkia uztartuz. Festei amaiera, berriz, Gozategik emango die. «Apustu horrekin ea azken egunean ere parranda egiten den», dio Otxandorenak.

BERASTEGIKO FESTAK

ABUZZUAK 7, ASTEAZKENA

10:30. Haurren frontenis-txapelketako finalak.

12:00. Suziria, buruhandi eta txistularien laguntzaz. Pregoiariak areto futboleko neska alebinak eta mutil infantilak izango dira.

12:30. Binakako pilota eta pala txapelketako finalak.

17:30. Herritarren arteko herri kirolak eta pentatloia, eskola atarian.

Ondoren. Perku-poteoa, herriko batukada taldearen eskutik.

21:30. Herri afaria.

Ondoren. Salontzotako kartel lehiaketako eta leiho, balkoi eta lorategi lehiaketako sari banaketak.

00:00. DJ Modesto

ABUZZUAK 8, OSTEGUNA

UMEEN EGUNA

10:00. Goiz deia.

10:00-13:00. Puzgarriak eta jolasak, eskola atarian.

15:00-18:00. Puzgarriak eta jolasak.

17:00. Apar festa, eskola atarian.

18:30. Walkman ikuskizuna, Ganso&Cia clown taldearen eskutik, plazan.

19:30. Fan&GO erromeri taldea.

Ondoren. Zahagi ardoa, plazan.

22:30. Alurr dantza taldearen emanaldia.

00:00. Fan&GO erromeri taldea.

ABUZZUAK 9, OSTIRALA

KUADRILLEN EGUNA

10:00. Goiz deia.

11:00. Patata tortilla txapelketa herrikoia, plazan.

Bitartean. Toka txapelketa (2006tik aurrera jaiotakoentzat) eta zinta-jokoa bizikletarekin.

Segidan. Tortilla dastaketa, txakolinaz lagunduta.

Egunean zehar. Jainekin txaranga.

14:00. Kuadrillen bazkaria, eskola atarian.

17:30. Kuadrillen arteko jokoak.

Ondoren. Sagardo dastaketa, txorizo egosiarekin eta gaztarekin.

Tartean. Joxe Mari Barriola urdaiazpiko moztaila eta toka txapelketa herrikoia (2005etik atzera jaiotakoentzat).

Ondoren. Zahagi ardoa eta bingo, plazan.

ABUZZUAK 10, LARUNBATA

SALONTZO EGUNA

09:00. Goiz deia.

09:30. Meza, San Lorentzo basilikan.

09:45. Mountain bike igoera herrikoia.

11:15. Alkate soinu udaletxetik elizara.

11:30. Meza nagusia, San Martin parrokian eta Lagunak abesbatzak *Perosiren obra* kantatuko du.

12:30. Pilota partidak. Lau eta erdian: Julen Garaiburu/Iker Zalakain. Binaka: Espinar-Arrillaga/Agirre-Etxaniz.

18:00. Herri kirolak plazan, *Baztan*-

Bidasoako Gure Kiroletako Klubaren eskutik.

Ondoren. San Juan dantzak eta helduen dantza soka.

Segidan. Zahagi ardoa, plazan.

22:30. Bertsolariak plazan: Iñigo Gorostazu, Alaia Martin, Andoni Egaña, Maialen Lujanbio eta Haritz Mujika. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

00:00. Laket erromeri taldea.

ABUZZUAK 11, IGANDEA

10:00. Goiz deia.

11:30. Herriko aurrebenjaminen, benjaminen, alebinen eta kadeteen pilota partidak.

18:00. Haurren dantza, txistu eta trikiti emanaldia eta dantza soka.

19:30. *Epa!* ikuskizuna, Demode quartet laukotearen eskutik, plazan.

20:30. Zahagi ardoa, aparkaleku azpiko lokalean.

22:30. *Dantzerti* emanaldia, herrikoen eskutik.

Ondoren. Gozategi taldea.





VOLVO XC60 PREMIUM EDITION BERRIA 35.450 EUROTİK*

Etorkizuneko segurtasuna aurkezten dugu
Ikus ezazu autosuecia.es webgunean



#VolvoXC60

2,2tik 7,8ra bitarteko kontsumo mistoa (L/100km). CO2 isurketak (g/km) 50etik 181era.

Auto Suecia

**Jauregui auzoa, 76,
Hernani (Gipuzkoa)**

943 33 11 31

* Volvo XC60 Premium Edition D3 Momentum 110 Kw (150 cv) eskuzko auto abiadura aldagailua; penintsularako salneurria (Extremaduran izan ezik) eta Balear uharteetan 35.450 eurotik (BEZ, garraioa, fabrikatzailearen ekarpena, eta Kontzesionarioen Sarea eta matrikulatze zerga barne). Volvo Car Financial Services* markapean finantzatutako unitateen salneurria (Volvo Car Group) Banco Cetelem S.A.U. A-78650348-ren bidez, gutxienez 29.000 euro finantzatzeko. Gutxieneko iraupena, 48 hilabete. Gutxieneko egonaldia, 36 hilabete. S.A.U. Banco Cetelem-en onarpenari lotuta. Eskaintza 2019ko irailaren 30a baino lehen saldutako pertsona fisikoei bakarrik eragiten die. Ikusten den modeloa ez da eskaintzako bera.

ALBIZTURKO FESTAK

UME NAHIZ HELDUENTZAT BADAGO FESTA

Ama Birjin egunean hasi eta igandera arte luzatuko dira jaiak. Bitartean, umeentzako ekitaldiak, musika eta kirolak nagusituko dira Albizturren.



Jende ugariak parte hartzen du Albiztour txirrindulari lasterketan. JOSU ARTUTXA

Iaz egindako apustuari eutsiz, aurtur ere lau eguneko egitaraua antolatu dute Albizturren. Deskantsurako astirik gabe, ostegunean hasi eta igandean amaituko dituzte jaiak.

Ama Birjin egunarekin, indartsu hasiko dituzte festak. Goizean, txistulariak, txupinazoa, meza nagusia eta erretirodunentzako hamaiketako egongo dira. Hortik aurrera, kirolak hartuko du protagonismoa eguerdian herriko haurrek jokatu dituzten pilota partidekin eta arratsaldeko herri kirol saioarekin. Indarrak berreskuratzeko afaldu egingo dute eta hankak airean ibiliko dituzte Jone Uria eta Julene Otegiaren erromeriarekin.

Indartsu hasi eta indartsu jarraituko dute beste hiru egunez ere. Umeentzako ekitaldiak izango dira nagusi ostira-

lean, baina helduagoentzat ere egongo da aukera patata tortilla lehiaketarekin edo pintxo potearekin. Gero eta garrantzi handiagoa duen Albiztour bizikleta lasterketa ere egun horretan egitea erabaki dute.

Larunbatean mozorroek hartuko dute herria. Umeak eta gazteak izango dira protagonista eta bazkaria, jokoak eta karaokea izango dituzte. Iluntzean, herri afaria egingo dute eta Kupe-laren erromeria izango da.

Azken egunean ere, kirola izango da nagusi. 11:15ean meza nagusia egongo da eta 13:00etan toka herrikoia izango dute. Festak amaitzeko, hiru pilota partida jokatu dituzte: Zubizarreta eta Elola, Arandia eta Insaustiren aurka; Aranzadi eta Aramendi, Iraeta eta Elolaren kontra; eta Elola eta Telletxea, Labaka eta Etxeberriaren aurka.

ALBIZTURKO FESTAK

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

09:00. Txistulariak.

11:00. Txupinazoa.

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako erretirodunentzat.

12:00. Herriko umeen pilota partidak.

18:00. Herri kirolak.

Ondoren. Barrikotea.

22:30. Erromeria Jone Uria eta Julene Otegiaren eskutik.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

12:30. Altzorraren bila herri guztian zehar.

16:00. Haur tailerrak.

19:00. Patata tortilla lehiaketa.

19:00. Albiztour.

Ondoren. Pintxo potea plazan, Antsorregi eta Larrañaga trikitilariak alaiturik.

ABUZTUAK 17, LARUNBATA

MOZORRO EGUNA

12:00. Triki potea.

14:30. Ume eta gazteen bazkaria.

16:30. Ume eta gazteen jokoak eta karaokea.

21:00. Herri afaria.

Ondoren. Erromeria Kupela taldearen eskutik.

ABUZTUAK 18, IGANDEA

11:15. Meza nagusia.

13:00. Toka herrikoia.

18:00. Pilota partidak:

Zubizarreta-Elola / Arandia-Insausti.

Aranzadi-Aramendi / Iraeta-Elola.

Elola-Telletxea / Labaka-Etxeberria.

ADUNAKO FESTAK



Ainhoa Arruti, Adunako festa batzordeko kidea. IRATI URDALLETA

«GOZATZEKO AUKERA IZATEN DUGU, BAINA BETI ALERTAN EGOTEN GARA»

AINHOA ARRUTI

FESTA BATZORDEKO KIDEA

Herri txikia izanda ere, zazpi eguneko festak dituzte prest Adunan. Besteak beste, danborrada, buruarin tailerra, antzerkia, pala txapelketa eta Gozategi dira nobedadeak.

Ama Birjin eguna dela eta antolatzen dituzte festak Adunan, baina aurreko asteburutik hasten dira festan, zazpi eguneko egitaraua osatuz.

Jai horiek antolatzearen ardura festa batzordeari dagokio, eta bertako ki-deetako bat da Ainhoa Arruti. Berak jendea animatu nahi izan du Adunara gerturatzeko, «berrikuntza dezente daudelako eta ikustea mereziko dute-lako».

Festa antolatzen ari zarete. Nola joan da prozesua?

Lehen, beti azkeneko momentuan korrika eta presaka ibiltzen ginen. Aurtan, berriz, lehenago hasi gara eta ondo joan da prozesua. Behin elkartuta, egunak zehazten ditugu lehenengo. Ondoren, musika taldeak lotu nahi

izaten ditugu, baina beti azkena lotzen amaitzen dugu. Horrela, pixkanaka, egunak antolatzen joaten gara. Abuztuan garai txarra tokatzen zaigu, leku askotan izaten direlako festak.

Zazpi eguneko festak antolatzen dituzue. Ez al zaizue luze egiten?

Niri ez. Gainera, aurtan motzagoak egingo zaizkit, egun batzuetan ez nagoelako. Hala ere, jendeak esan izan digu lau egun nahikoa eta soberan direla.

Festa Batzordeko kide izanda, gozatzeko aukerarik egoten al da?

Bai. Agian, egunen bat hartu behar duzu zure kargu edo zerbait falta bada ere zuregana jotzen dute, baina gozatzeko aukera egoten da. Hala ere, beti alertan egoten zara.

Izen bitxia du lehen ekintzak baita festen hasiera iragartzen duenak nahiz amaierakoak ere. Zer dira zehazki?

Batzordeko kide batek proposatu zuen buruarinen tailerra egitea. Izan ere, txupinazoa botatzen denean, buruhandiak ateratzen dira eta beti herriko gazteak ateratzen dira jantzita. Horrela, aukera eman nahi izan diegu herriko umeei bakoitzak bere buruari-na egiteko, eta hogeit hamar urte ingururen-tzako tailerra izango da.

Idea hori bota zuenak berak propo-satu zuen kukurrukuarena ere. Pertso-naia hau oilasko bat izango da eta kan-pandorretik udaletxeko balkoira jaitsi-ko da, txupinazoa botatzen denean. Azken egunean, berriz, gora igoko da.

Aurtan adin desberdinetako jendea bilduko zarete mahaiaren inguruan oilasko biltzaileen, umeen eta 60 urtetik gorakoekin bazkarian.

Hiru bazkari daude egun berean, bai-na leku desberdinetan izango dira. Umeena elkartean egiten da, guraso elkartean antolatuta, 60 urtetik gora-koena tabernan egiten da eta musika ere edukitzen dute eta oilasko biltzai-leena sagardotegian egiten dugu. Afaria, berriz, aurreko urtean, elkartean prestatu zigun kuadrilla batek eta aurtan beste batek egingo du.

Berrikuntza ugari sartu dituzue aurtengo festetan.

Bai, buruarinetatik hasita. Caldereria Aburuza Pala Txapelketa ere antolatu dugu, batez ere, nesken parte hartzea bultzatzeko asmoarekin. Landare lehiaketa ere bere garaian egiten zen, baina nik ez dut ezagutu. Helduek oroitzapenak berreskuratzeko ekintza polita iruditu zitzaigun. Aurtan, *Zoaz pake santuan* antzerkia ere ekarri dugu, eta elizan egingo denez, aproposa izango da. Bestalde, orain arte deskantsu eguna zenean, danborrada egingo dugu. Festa batzordeko batek eta beste batek izan zuten ideia eta probatzea erabaki dugu. Donostiatik utzi dizkigute danborrak eta barrilak eta herriko bi emakume jarriko dira zuzendari. Lehenengo afaldu egingo dugu eta 23:30ak aldera hasiko gara. Azkenik, Gozategi ere ekarriko dugu.

Hala ere, azeri dantza edo oilasko biltzea bezalako ekintza tradizio-nalekin ere jarraituko duzue.

Bai. Azkenean, Adunako festen oinarri dira. Hainbeste urtetan iraun duten tradizioak dira eta nik uste mantendu beharrekoak direla. Lehengo urtean, esaterako, hiru neska atera ziren lehenengoz azeri dantzan, eta oso ona izan zen. Tradizioak mantentzeko diren arren, berriro ere egin behar dira. Oilasko biltzea ere egon ginen hiru edo lau urtez egin gabe eta duela bi urte berreskuratu genuen. Bertan, moztortuta ateratzen gara, dantza egiten dugu eta plastikozko oilaskoari burua moztzen saiatzen gara.

Musikari ere garrantzia ematen diozue, ezta?

Bai. Azkenean, herri txikietako festetan hemengo musika jartzen dugu: trikitia. Baina Adunara, nik behintzat, ez nuke besterik ekarriko. Hala ere, DJ-a ere edukiko dugu.

Egun bete-beteak dituzue.

Oso egun ederrak dira. Txekor jatean, goizetik hasten dira lanean, sagardo dastaketa eta pintxoak egoten dira baita bazkaria eta afaria ere. Ama Birjin egunean, diana egoten da, meza, dantzak, bertsolariak eta antzerkia. Egun polita iruditzen zait. Normalean, familiarekin bazkaltzen da eta herrian bizi ez direnak ere etortzen dira. Ateratzeko eta jendea biltzeko aukera ikaragarria ematen duen eguna da. Umeek puzgarriak edukiko dituzte goizez eta arratsaldez eta mago bat ere bai. Oso gustura ibiltzen dira, eta festak egun honen zain igarotzen dituzte. Azkenik, Kuadrillen Egunean giro desberdina da. Beste herri batzuetan kuadrilla bakoitzak bere janaria eramaten du eta uste dut hori dela desberdintasuna. Hemen, urtero kuadri-

lla batek guztientzat prestatzen du eta beste giro bat sortzen da. Niretzat, Oilasko Biltzaileen Eguna eta Kuadrillen Eguna bizitzen ditu gehien jendeak.

Festak parrandan amaitzeko aukera egongo da Kuadrillen Egunarekin.

ADUNAKO FESTAK

ABUZTUAK 10, LARUNBATA

10:00. Buruarinen tailerra.

12:00. I. Caldereria Aburuza Pala Txapelketa.

17:00. XVI. Trans-Ernio Pilota Txapelketa.

ABUZTUAK 11, IGANDEA

TXEKOR-JATE EGUNA

11:00. Herri krosa.

12:00. Sagardo dastaketa.

12:30. Landare lehiaketa (12:00ak baino lehenago aurkeztu beharko dira).

14:00. Txekor jate bazkaria.

18:00. Toka txapelketa.

19:30. Bide batez musika taldea.

21:00. Txekor jate afaria.

Ondoren. Bide batez musika taldea.

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA

19:00. Lehen a gora, Kukurruku behera eta pregoia.

Ondoren. Pintxoak eta barrikotea.

20:30. Afaria, Euskal Parrillaren eskutik.

23:00. Izer eta Alabier musika taldea.

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

AMA BIRJIN EGUNA

07:00. Diana.

11:00. Meza nagusia.

12:00. Umeen dantza saioa.

Ondoren. Azeri dantza.

18:30. Tio Teronen semeak taldea.

Hemen jendeak aitzakia gutxi behar izaten du horretarako. Azkenean, egun suabeena bihurtzen da askotan okerreana. Afaldutakoan, moztortutu eta plazara igotzen gara eta hor sortzen da festa. Aurten, umeak helduz eta helduak umez jantziko gara.

19:30. Bertso saioa: Unai Agirre, Beñat

Gaztelumendi, Alaia Martin eta Unai Mendizabal. Gai jartzailea: Amaia Agirre.

22:30. Zoaz pake santuan! antzerkia.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

20:30. Danbor jotzaileen afaria.

23:00. Adunako I. Herri Danborrada.

ABUZTUAK 17, LARUNBATA

OILASKO BILTZAILE ETA UMEEN EGUNA

06:00. Oilasko bilketaren hasiera.

11:30-13:00. Puzgarriak eta jolasak haurrentzat.

13:00. Oilasko jokoa eta III. Urrezko ollaskua.

14:00. Umeen, oilasko biltzaileen eta 60 urtetik gorakoen bazkaria.

Ondoren. Eriz magoa.

16:00-19:30. Puzgarriak eta jolasak.

21:00. Oilasko biltzaileen afaria.

23:30. Gozategi musika taldea.

ABUZTUAK 18, IGANDEA

KUADRILLEN EGUNA

14:00. Kuadrillen bazkaria.

Egunean zehar. Oria txaranga.

19:00. Kuadrillen arteko jokoa.

20:00. Ogitartekoak.

Ondoren. DJ Bull eta Mozorro Gaua.

Helduak umez moztortutuko dira eta umeak helduz.

00:00. Azkena gora!



BALIARRAINGO FESTAK

TRADIZIOEI EUTSIZ, GUTXI ALDATUTA

Herri ugaritan ospatzen dira festak Ama Birjin egunaren inguruan, eta hala egiten dute Baliarrainen ere. Aldaketa handirik egin gabe, jaiez gozatzeko aukera izango dute hiru egunetan zehar.

Ama Birjin bezpera, eguna eta biharamuna aprobetxatzen dituzte baliarraindarrek festarako. Asteazkeneko txupinazoarekin ekingo diete jaiei eta segidan, herri mailako pilota partiden finalak jokatuko dituzte. Kirol pixka bat egin ondoren, paella jatea egingo dute.

Txartelak Zartagi ostatuan erosi beharko dira, abuztuaren 9a baino lehen. Arratsaldean, umeeek jolasak izango dituzte eta helduagoek ere ederki pasako dute Txikiren bakarrizketarekin. Aurten, ogitarteko plana egitea pentsatu dute 21:00etan eta festarekin jarraitzeko Harresi taldea eta DJ Balda izango dituzte.

Festetako egun nagusian ere kirola gailenduko da goizean egingo den Jexux Nazabalen oroimenezko LVII. Txirrindulari Igoerarekin eta arratsaldeko pilota partidekin. Ondoren, Obaneuke musika taldearen kontzertua egongo da. Afalostean jarraituko du festak Imanol Ituiñoren *Magia parrastan* ikuskizunarekin eta Obaneuke taldearen erromeriarekin.

Adinekoek hasiko dute festetako azken eguna mezarekin eta hamaiketakoarekin. Arratsaldean umeeek gozatu ederra hartuko dute puzgarrietan saltoka. Jarraian, lehiaketa bitxi aipagarri bat jokatuko dute: txapel jaurtiketarena. Txapela urrutien norik botatzen duen jakindakoan, herri afaria egingo dute. Azken egunetan ere ez da festarako aukerarik faltako. Bide Batez taldearen erromeriarekin dantzari aitu ostean agurtuko dituzte baliarraindarrek festak, hurrengo urtera arte.



Txapela nork urrutien bota ariko dira lehian. IMANOL GARCIA LANDA

BALIARRAINGO FESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA

11:00. Txupinazoa.

11:30. Herri mailako pilota partiden finalak.

14:00. Paella jatea. Txartelak Zartagi ostatuan erosi beharko dira abuztuaren 9aren aurretik. Haurrek bost euro ordaindu beharko dute eta helduek hamabost euro.

Ondoren. Mus txapelketa

18:00. Haur jolasak.

20:00. Txikiren 40 urte eta aldapan behera niek bakarrikzeta.

21:00. Ogitarteko plana.

Iluntzean. Harresi taldea.

Ondoren. DJ Balda.

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

11:00. Meza nagusia.

11:45. LVII. Txirrindulari Igoera, Jexux Nazabalen oroimenez.

18:00. Pilota partidak:

Zubizarreta / Elizegi eta

Elola / Irazustabarrena.

Ondoren. Obaneuke musika taldea.

22:30. Imanol Ituiñoren *Magia parrastan* ikuskizuna.

Iluntzean. Obaneuke taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

11:00. Meza.

Ondoren. Adinekoentzako hamaiketakoa.

15:00. Puzgarriak.

18:00. Txapel jaurtiketa.

20:00. Herri afaria.

Iluntzean. Bide Batez taldea.

*Egitarauko ekintzak aldatu daitezke eta behin betikoa www.baliarrain.eus webgunean jarriko dute.

HERNIALDEKO FESTAK



Haurren nahiz helduek gozatuko dute Berrobiko festetan. JOSU ARTUTXA

OINARRIARI EUTSIZ, BAINA BERRITUZ

Eskualdeko beste hainbat herritan bezala, Ama Birjin festak ospatuko dituzte Hernialden ere. Egunean bertan hasi eta, abuztuaren 18raino luzatuko dira.

Hernialden ere ez dira atzean geratu eta Ama Birjin jai oparoak antolatu dituzte aurtan ere. Mezarekin eta txupinazoarekin leher-tuko da festa eta elkartean egingo den hamaiketakoarekin segituko dute. Arratsaldea pilota partidez gozatzen igaroko dute eta jai giroa nagusi izango da iluntzean ere, zahagi ardoarekin eta Kupelaren erromeriarekin.

Bigarren eguna ez da gutxiagorako izango. Suziriek esnatuko dute eguna herriko helduenek. Gainera, herriko trikitilariak alaitutako toka txapelketa eta luntxa ere izango dituzte. Eguerdian, ederki bazkalduko dute ostatuan, eta bingoan jolasean jardungo dute. Beste aukera batzuk ere egongo dira. Esaterako, patata tortilla lehiaketa. Iluntzean, bezperan bezala, zahagi ardoa edukiko dute, baita Baltzola eta Andonegiren erromeria ere.

Haur eta gazteek leku berezia izan ohi dute herriko festetan, eta hala edukiko dute Hernialden ere. Goiza hainbat tailerretan igaroko dute eta neketik errekuuperatzeko, bazkaria izango dute. Arratsaldean ere ez dira aspertuko, frontenis txapelketa jolastuko baitute. Iluntze aldera, helduagoak batu-ko dira festara. Herri afaria egingo dute eta herriko dantzariak nahiz Alurr dantza taldea ikusi ostean, Obaneuke musika taldearekin erromerian igaroko dute gaua.

Azken eguna ere aprobetxatzeko izango da. Goizean, tradizio handiko ekintza egingo dute: XXXVIII. Sagardo Txapelketa. Guztira, bederatzi sagardotegik hartuko dute parte. Ikusgarriak izango dira 18:00etan hasiko diren herri kirolak ere, eta ez da zahagi ardorik faltako. Festak ederki amaituko dituzte Hernialden, Gabezin musika taldearekin.

HERNIALDEKO FESTAK

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

11:00. Meza.

12:00. Txupinazoa eta suziria.

Jarraian. Hamaiketako elkartean.

18:00. Pilota partidak: Orbegozo-Zubizarreta/Iztueta-Arillaga.

Garcia-Amiano/Telleria-Amundarain.

20:30ean. Zahagi ardoa.

Jarraian. Kupela musika taldea.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

ERRETIRATUEN EGUNA

12:00. Erretiratuek suziria botako dituzte.

Jarraian. Toka txapelketa eta luntxa, herriko trikitilariak alaituta.

14:00. Erretiratuentzako bazkaria ostatuan.

Ondoren. Bingoa.

18:00. Patata tortilla lehiaketa.

20:30. Zahagi ardoa.

Jarraian. Baltzola eta Andonegi trikitilariak erromeria.

ABUZTUAK 17, LARUNBATA

HAUR ETA GAZTE EGUNA

10:30. May Gorostiaga eta tailerrak: zirkua, burbuila erraldoiak, Maider Alzelai ipuin kontalaria eta Imanol Ituiñoren *Magia parrastan* ikuskizuna.

14:00. Haur eta gazteen bazkaria.

17:30. Frontenis txapelketa.

20:30. Herri afaria.

22:30. Herriko dantzariak eta Alurr dantza taldea.

Jarraian. Obaneuke musika taldea.

ABUZTUAK 18, IGANDEA

11:00. Meza.

12:00. XXXVIII. Sagardo Txapelketa.

18:00. Herri kirolak. Inaxio Perurena harri-jasotzen, Pellejero eta Txapartegi aizkoran eta Mikel Lasarteren motozerra erakustaldia.

20:30. Zahagi ardoa.

Jarraian. Gabezin musika taldea.

**Egitarau hau ez da behin betikoa eta aldaketak egon daitezke.*

ZIZURKILGO FESTAK



Eraso sexisten aurka daudela aldarrikatuko dute. JOSU ARTUTXA

18

HERRIGUNEAN, GOI MAILAKO FESTAK

Tolosaldeko herri ugaritan bezala, Andre Mari festak ospatzen dituzte Zizurkil Herrigunean ere. Iaz baino egun bat motzagoak izan arren, ez da aspertzeko denborarik egongo abuztuaren 14tik 17ra.

Oilaskoak biltzen. Horrela hasiko dituzte aurtien ere Zizurkil Herriguneko festak eta parte hartu nahi dutenek baserritarrez jantzi beharko dute. Batzuk baserriz baserri dabiltzan bitartean, haur eta nerabeak frontenisean lehiatuko dira. 14:00ak aldera jai-tsiko dira oilasko biltzaileak kalera eta dantzaldia eskainiko dute. Ondoren, eraso sexisten aurka daudela aldarrikatuko dute, argazki bat aterata. Arratsaldean ere ez da entretenimendurik faltako. Imanol Ituiño magoak *Magia parrastan* ikuskizuna eskainiko du plazan eta idi probak izango dira plaza berrian. Eguna festan igaroko badute ere, 19:30era arte itxaron beharko da suziria lehertzeko. Alatzne Etxaburua

segalaria izango da metxa piztearen arduraduna. Behin festan sartuta, herri afaria egingo dute plazan. Txartelak ohiko lekuetan egongo dira salgai eta abuztuaren 11 baino lehenago erosi beharko dira. Tripa bete ostean, erromeria egingo dute Laiotz taldearekin.

Festetako egun nagusia etxeko txiki-ekien eta helduenek esnatuko dute. Mezaren eta erretirodunen hamaiketakoaren ondoren, ping-pong-a eta mahai jolasak izango dituzte. Eguerdirako, berriz, herri kirolen erakustaldia daukate prest. Pentatloian lehiatuko dira Joseba Otaegi eta Luis Txapartegi, aizkoran Jon Irazu eta Jokin Alkizalete eta harri-jasotzen Jon Unanue *Goenatxo III.a* ariko da. Kirolarekin segituz, haur eta nerabeentzako saskibalo

partidak izango dira 16:30ean eta hamabosgarren aldiz, trikiti txapelketa jokatu dute, 18:00etan. Ondoren, egarria kenduko dute sagardo dastaketarekin eta hor ere ez da trikitorik faltako, Leire Lasa eta Irati Irurtzunekin. Zizurkildarrek gozatzen jarraituko dute bertso saioarekin eta Izer eta Alabierrek alaituko dute gaua.

Ostiralean, txiki-ekien izango dute egun handia. 12:00etan krosa edukiko dute eta ordu laurden lehenago hasiko da izen ematea. Korrika jarraituko dute buruhandiek eta ondoren egingo diren jolasekin. Indarrak berreskuratuko dituzte 14:00etan egingo den bazkarian eta arratsaldea ere disfrutatuz igaroko dute puzgarri eta jolasetan. Baina helduagoek ere izango dute festarako tarterik. 16:00etan XXX. Mus Txapelketa jokatu dute zentroan eta hankak mugitu nahi dituenarentzat Ttipika taldearekin dantzaldi gidatua egingo dute 18:30ean. Iluntzean ere ez da festarik faltako. Izan ere, zezen suzkoa, zimiterioko pilota txapelketako finalak eta «Malli memorialeko» 3. eta 4. postuak nahiz finala jokatu dituzte. Ondoren, erromeria egingo dute Laket taldearekin.

Festei ez diete nolanahiko agurra emango Kuadrillen Egunaekin. 12:00etan hasiko da festa Añorga eta Zizurkilgo erraldoi eta buruhandien konpartsaekin. Tokan eta txapel jaur-

tiketetan ez da lehiarik faltako eta herri bazkaria ere egingo dute. Arratsalde ederki pasako dute bingoarekin eta kuadrillen arteko jolasekin. Fan&GO taldeak 19:30ean eta 23:00etan saioa eskainiko du eta goizaldera arte parrranda egingo dute DJ Jotatzorekin.

ZIZURKILGO FESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA

06:30. Oilasko biltzearen hasiera.

12:00. Haur eta nerabeentzako frontenis txapelketa.

14:00. Oilasko biltzaileen dantzaldia eta eraso sexisten aurkako herri argazkia.

17:30. Imanol Ituiño magoa.

18:00. Idi probak, plaza berrian.

19:30. Suziria. Txapel Eguneako txapelduna izan den Alatzne Etxaburuak botako du.

21:00. Herri afaria plazan.

Ondoren. Erromeria Laiotz taldearekin.

ABUZTUAK 15, OSTEAGUNA

AMA BIRJIN EGUNA

11:00. Meza nagusia.

Ondoren. Erretirodunen hamaiketako.

12:00. Ping pong-a eta mahai jolasak.



12:30. Herri kirolen erakustaldia: pentatloia, aizkora eta harri-jasotzea.

16:30. Saskibalo partidak haur eta nerabeentzat.

18:00. XV. Trikiti Txapelketa.

Ondoren. Sagardo dastaketa plazan, Leire Lasa eta Irati Irurtzun trikitilariarekin.

23:00. Bertso saioa.

Ondoren. Izer eta Alabier.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

UMEEN EGUNA

11:45. Kroserako izen ematea.

12:00. Krosa.

12:30. Buruhandiak.

Ondoren. Jolasak.

14:00. Bazkaria herriko umeentzat.

15:30-19:30. Puzgarriak eta jolasak.

16:00. XXX. Mus Txapelketa zentroan.

18:30. Ttipika taldearekin dantzaldi gidatua.

22:00. Zezen suzkoa.

22:30. Zimiterioko XVII. Pilota

Txapelketako finalak. *Malli memoriala* 3. eta 4. postuak eta finala.

Ondoren. Erromeria Laket taldearekin.

ABUZTUAK 17, LARUNBATA

KUADRILLEN EGUNA

12:00. Añorgako eta Zizurkilgo erraldoien eta buruhandien konpartsa herrigunean.

13:00. Toka txapelketa eta txapel jaurtiketa.

14:30. Herri bazkaria.

Ondoren. Bingoa eta kuadrillen arteko jokoak.

19:30. Fan&GO taldearen lehen saioa.

23:00. Fan&GO taldearen bigarren saioa.

Ondoren eta goizaldera arte. DJ Jotatxo.



IRIARTE

JATETXEA

Pedro Maria Otaño plaza, 1 ZIZURKIL • 943 692 537



ataria
argazki lehiaketa

Udako argazki lehiaketa



Bi lagunentzako asteburu bateko egonaldia KURTZIA Landetxearen eskutik.

www.kurtzia.com 946840607 • 616945662 •
Kurtziaga auzoa, 11 - 48288 ISPASTER (Bizkaia)

Epaimahaiaren saria



Lau lagunentzako bazkari bat Inazio Urruzola txakolindegian

inaziourruzola.eus • 658 734 471 | 605 758 572
Arana Bailara, 18, 20494 Alkiza

ataria.eus-eko erabiltzaileen saria

zumardia
natura - hezkuntza - kirola

Zumardia elkarteak eskaintako bi neguko eski ikastaro zozkatuko dira.

https://www.zumardia.eus/
688 726 213 \ info@zumardia.eus

atarikide-en saria



harpidedun izateak badu saria saridunak

1 TXINDOKIKO ITZALA Abentura Parkea

Bi lagunentzako bina sarrera

txindokikoitzala.com/eu/
info@txindokikoitzala.com
628 947 253 | 943 654 757
ABALTZISKETA

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko. Aurrez deitu.

- Ion Zuriarrain (Orendain)
- Aitziber Urrestarazu (Tolosa)



2 TXURI URDIN irristaketa librea

Bi lagunentzako bina sarrera

Anoeta pasealekua, 24
DONOSTIA
Tel.: 943-46 44 04
www.eltxuri.com

Bi hilabeteko epea saria erabiltzeko.

- Itziar Urkola (Tolosa)
- Andres Vitoria (Tolosa)



3 LEARTIBAI ondarearen kalitatezko kontserba eta produktu sorta

Laneko Koop. Elkarte
Okamikako industrialdea, 2 5 A
48289 Gizaburuaga.
94 684 20 26
www.bbkazoka.eus/eus/kolekzioak/laneko

- Josu Garmendia (Zizurkil)



ORENDAINGO FESTAK



Iaz, herritarren arteko herri kirolak egin zituzten. JOSU ARTUTXA

BERRIKUNTZA GUTXI, BAINA BETE-BETEAK

Ama Birjin egunaren inguruan antolatzen dituzte festak Orendainen. Tradizio handiko ekintzak izango dituzte oinarri, baina bingoa bezalako berrikuntzak ere egongo dira.

Herri txikia izanda ere, ekitaldiz betetako hiru egun dituzte aurretik orendaindarrek. Abuztuaren 14an ekingo diete festei, arratsaldeko 18:00etan txupinazoa botaz. Jarraian, herri kirol saioa ikusteko aukera egongo da eta poteoa ere egingo dute, Elektropapo elektrotxarangaren laguntzaz. Indarrak berreskuratzeko, saiheski jatea egingo dute, 21:00etan. Parrandarako aukerarik ere ez da faltako. Horretarako, aukera bikaina egongo da Obaneukeren erromeriarekin eta elektrotxaranga ere egongo da goizaldera arte.

Batzuk bezperako parrandak utzitako ajea pasatzen egongo diren arren, ostegunean ere jarraituko du festak. Ama Birjin eguna dela eta, goizean

meza izango da eta herriko trikitilariak nahiz dantzariak emanaldia eskainiko dute. Bitartean, hainbat sagardo etxeren sagardoak dastatuko dituzte bertaratutakoek. Arratsaldea, berriz, jolasean igaroko dute umeek, beraientzat antolatutako jolasetan. Jarraian, bosgarren aldiz egingo da lokotx bilketa eta gaueko bederatzieta, zahagi ardoa izango da, urtero legez. Aurtengo berrikuntza nagusia ere orduan izango da: bingoa. Festak ez du etenik izango 23:00etan hasiko den La Jodederaren kontzertuaren bidez.

Azken eguna izanagatik ere, egun bete-betea izango da ostirala. Hogeita zazpigarrenez, txirrindulari lasterketa egingo dute, 12:00etan hasita. Jarraian, babarrun zozketa izango da eta herri bazkaria ere egingo dute, Eltxo

elkartean. Jaiak amaitzeko, patata tortilla lehiaketa izango dute, 19:00etan, eta 20:15erako amaitu beharko dituzte tortillak parte hartzaileek. Festan jarraitu nahi duenak horretarako aukera izango du Harresi taldeari eta DJ Baldari esker. Urtero legez, harriari buelta emanez agurtuko ditu Orendainek jaiak, hurrengo urtera arte.

Saiheskia jateko txartelak

Iaz egin zen bezala, aurten ere asteazken iluntzeko saiheski jatera joan nahi duten herritarrek txartelak erosi beharko dituzte, abuztuaren 5a baino lehenago, Ostatu tabernan.

Hamabi urtez azpikoek ez dute ordainduko, baina haurren txartela hartu beharko dute.

ORENDAINGO FESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA

18:00. Txupinazoa.

Jarraian. Herri kirolak eta poteoa Elektropapo elektrotxarangarekin.

21:00. Saiheski jatea.

23:00. Obaneuke taldea eta elektrotxaranga goizaldera arte.

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

11:15. Meza.

Ondoren. Herriko dantzari eta trikitilariak.

Bitartean. Sagardo dastaketa.

17:00. Ume jolasak.

18:30. V. Lokotx Bilketa.

21:00. Zahagi ardoa eta bingoa.

23:00. La Jodedera taldea.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

12:00. XXVII. Txirrindulari lasterketa.

Jarraian. Babarrun zozketa.

14:30. Herri bazkaria, Eltxo elkartean.

17:00. Haurrentzako puzgarriak eta toka.

19:00. Patata tortilla lehiaketa.

23:00. Harresi taldea eta DJ Balda.

00:00. Harriari buelta ematea.

GAZTELUKO FESTAK

HERRI TXIKIA, BAINA FESTA HANDIAK

Uztailaren 13a, 14a eta 15a festa egunak izango dituzte Gaztelun. Berrikuntza handirik gabe, baina ekitaldiz beteta datoz aurtengo Ama Birjinak.

T amainaz txikia da Gaztelu eta festak ere beste herrietan baino motzagoak izango dituzte, baina ekintzaz bete-beteak.

Ama Birjin eguna eta bezpera badi-
ra ere egun handiak, abuztuaren 13an
hasiko dituzte festak 21:00etan egingo
den barrikotearekin eta udako zine-
marekin.

Hurrengo egunean, festa lehertuko
da eta herriko emakume baserritarrek
izango dute ardura hori. Ondoren, txi-
kienen txanda izango da dantza eman-
aldia egingo baitute, eta puzgarrie-
tan tirolinan eta zaldi gurdian ere ibili-
ko dira. Hurrengo ekintza ere
beraizentzat izango da: kamiseta seri-
grafia. Bakoitzak bere kamiseta txuri
edo kolore argikoa eraman beharko du
eta nahi duen diseinua egingo du ber-
tan. Goiza jolasean pasa ondoren,
13:30ean bazkalduko dute haur eta
gazteek. Arratsaldean ere ez dute as-
pertzeko tarterik izango 16:00etan ha-
siko den bizikleta jolasarekin eta ja-
rraian egingo diren txokolate janare-
kin eta apar festarekin. Iluntze aldera,

helduak batuko dira festara. 21:00etan
herri afaria egingo dute eta irrintzi
onena nork botako ariko dira jarraian.
DJ Koolen emanaldiarekin eta ondo-
ren egingo den karaokearekin festa eta
umorea nagusituko dira Gaztelun.

Bezperako ajea usatzeko onena fes-
tan goizean goizetik sartzea da. Eta

hori egingo dute Gaztelun. Herritarrek
diren Inma Matzinandiarena eta
Amaia Saralegi txistulariekin diana
egingo dute. Ondoren, meza eta ha-
maiketako egingo dituzte eta pilota
partida ikusteko aukera ere egongo da.
Toka txapelketaren ondoren, kirola-
ren txanda izango da. Herri kirolean
herriko gazteak segan, trontzan eta
aizkoran jardungo dira eta Ostolaza
aita-alabek harria jasoko dute. Ja-
rraian, aldarrikapenari egingo diote
tarte eta 47ak eta besteak herrian le-
lopean argazkia aterako dute. Iluntze
aldera ere ez da festarik faltako.
19:00etan txarangak alaituko du Gaz-
teluko plaza eta gosetu denak afaria
zain izango du 21:00etan.

Herriko festak amaitzeak tristura
eragiten die askori, baina Gaztelun
ondo asko dakite umoreak nolako ga-
rrantzia duen, eta festak barrez amai-
tzea erabaki dute. Horretarako, Txiki-
ren 40 urte eta aldapan behera niek
bakarrizketa izango dute.



Aurten ere tirolinan ibiliko dira txikienak. MIKEL IRAOLA

GAZTELUKO FESTAK

ABUZTUAK 13, ASTEARTEA

21:00. Barrikotea eta udako zinema.

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA

12:00. Txupinazoa, herriko emakume
baserritarren eskutik.

Ondoren. Herriko haurren dantza
emanaldia, puzgarriak, tirolina eta zaldi
gurdian ibiltzeko aukera.

13:00. Kamiseta serigrafia.

13:30. Haur eta gazteen bazkaria.

16:00. Bizikletarekin jolasa.

Ondoren. Txokolate jatea eta apar festa.

21:00. Herri afaria frontoian.

Jarraian. Irrintzi lehiaketa.

23:30. DJ Kool.

Ondoren. Karaokea.

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

10:30. Diana herriko txistulariekin.

11:00. Meza.

Ondoren. Hamaiketako.

12:00. Pilota partida.

13:00. Toka lehiaketa.

18:00. Herri kirolak. Herriko gazteak segan,
trontzan eta aizkoran eta Ostolaza aita-
alabak harri-jasotzen.

Ondoren. 47ak eta besteak herrian
lelopean argazkia.

19:00. Txaranga plazan.

21:00. Afaria.

Ondoren. Txikiren bakarrizketa.

GOIAZKO FESTAK

KIROLA ETA MUSIKA UZTARTUZ

Abuztuaren 14tik 18ra, bost eguneko festak dituzte aurretik goiaztarrek. Bigarren aldiz antolatu duten trikiti txapelketa eta Azpeitiko sokamutilen aurkako desafioa dira ekintzarik azpimarragarrienak.

Ama Birjin egunaren bueltarako antolatzen dituzte jaiak Goiatzen, baina festa batzordeko kidea den Egoitz Aburuzak azaldu duenez, urte hasieratik hasten dira lanean. Hasieran, musika taldeak lotzen dituzte eta gero, herri afariarekin hasten dira. «Jada hartuta daukagu zein gauza egin behar ditugun hasieran».

Bigarren aldiz antolatu duten gazteen trikiti txapelketa da, Aburuzaren iritziz, ekintzarik azpimarragarriena. «Lehengo urtean, jende pila bat inguratu zen eta saltsa polita sortu zuen. Aurten ere hala izatea espero dugu», dio.

Urtero bezala, herri kirol desafioa ere egingo dute, igande arratsaldean. Oraingoan, Azpeitiko sokamutilen aurka egitea erabaki dute. «Gazteetan badaukagu mutil bat Azpeitian zezen munduan ibiltzen dena. Horregatik, sokamutilen artean kuadrilla bat animatu zaigu», azaldu du.

Berrikuntza bezala, mendi bizikleta ibilaldia antolatu dute lehenengo aldiz. 22 kilometro inguruko buelta bat izango da, eta amaitutakoan, salda eta haragi egosia egongo dira hamaiketakorako. 18 urtetik gorakoek libre daukate parte hartzea eta hortik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.

Bost egunetan, adin guztiei zuzendutako ekintzak antolatzen saiatzen dira. Horren adibide dira haur jolasak edo heldu eta gazteek parte hartzen duten mus txapelketa.

Aburuzak jendea animatu nahi izan du Goiatzera hurbiltzeko, eta festarako aukerarik, behintzat, ez zaie faltako.



Egoitz Aburuz, iaz bidanlarren aurka egindako herri kiroletan. JOSU ARTUTXA

GOIAZKOFESTAK

ABUZTUAK 14, ASTEAZKENA

14:00. Jaien hasiera suziri eta ezkilekin.

17:00. Ume jolasak.

Ondoren. Txokolatea.

21:00. Herri afaria frontoian.

Ondoren. Itzeder eta Lidia trikitilariak.

ABUZTUAK 15, OSTEGUNA

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Hamaiketako helduentzat.

12:00. Herriko gazteen pala partida eta esku pilota partida:

Dorransoro-Iraeta/Aranzadi-Tolosa.

18:00. Goiazko II. Trikiti Txapelketa.

22:00. Elizagaien ahizpen erromeria.

ABUZTUAK 16, OSTIRALA

21:00. Afaria frontoian, zahagi ardoarekin. Bakoitzak bere afaria eraman beharko du, eta antolatzaileek ardoa, ogia eta postrea jarriko dituzte.

Ondoren. Obaneuke taldearekin erromeria.

ABUZTUAK 17, LARUNBATA

09:30. Mendi bizikleta ibilaldia, Goiazko plazatik abiatuta.

Ondoren. Parte hartzaileentzat hamaiketako.

16:00. XVII. Mus Txapelketa. Izen ematea 15:30ean hasiko da.

19:00. Sagardo dastaketa. Pintxoak doan izango dira.

22:30. Esku Pilota Txapelketako finalak, bertsolariek alaituta.

Ondoren. Bide Batez taldea.

ABUZTUAK 18, IGANDEA

11:15. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko dantzariak.

Jarraian. Poteo herrikoia.

19:00. Herri kirol desafioa: Goiazko gazteak Azpeitiko sokamutilen aurka. Txikia eta Larrañaga aizkoran; Goenatxo II eta Guztia harri-jasotzen; eta herriko gazteak trontzan, ingudean, korrika, lokotxetan eta txingetan.

22:00. Laja eta Narbaiza trikitilariak.

BIDANIKO FESTAK



Aiora Aburuza Bidaniko festa batzordeko kidea da. ATARIA

«GAZTEAK IZAN ARREN ANTOLATZAILEAK, FESTAK GUZTIENTZAT DIRA»

AIORA ABURUZA
FESTA BATZORDEKO KIDEA

Desafioek garrantzi handia hartu dute Bidanian. Aurten, Albizturri bota diote erronka. Ibarrako emakumeak idien kontra ere ariko dira. Baina parrandarik ere ez da faltako.

Herri txiki bateko festak antolatzea ez da erraza eta guztiek ondo pasa dezaaten lanean aritzen dira festa batzordeko kideak. Horietako bat da Aiora Aburuza. Behin egitaraua prestatuta jendea animatu nahiko luke Bidanira hurbiltzeko, «gustura hartuko dituztelako» eta «herritarrentzat egiten diren festak izan arren, kanpotik etortzen direnek ere ondo pasatzen dutelako».

Nolakoa izaten da Bidaniko festen antolaketa?
Luzea. Uda pasa eta parranda pixka bat egin ondoren hasten gara antolakuntzan. Urrian, balorazioa egiteko elkartzeko gara lehenengo aldiz. Orduan ikusten dugu zein akats egin diren aurreko festetan, eta hurrengo urtera be-

gira, jendeari deika hasten gara. Lanak ere orduan banatzen ditugu: gaueko musika, sagardoaren kontua, edariak... Ardura horiek hurrengo bilerrako lotuta utzi nahi izaten ditugu. San Andresetan aurreko urtean sobratutako diruarekin afari bat egiten dugu eta horren ondoren, bilerekin hasten gara. Izan ere, kontuan hartu behar da abuztuan leku askotan direla festak, eta aurretik mugitu behar izaten dugu.

Festa batzordeko kide izanda, nola bizitzen dira festak?

Lehenengo egunean gozatzen dugu. Orduan, poteoa egiten dugu. Lehen, goizetik hasten ginen, baina herri afaria ez ginen txukunak iristen eta orain

arratsaldetik hasten gara. Lehenengo egun hori guretzat izaten da, batez ere. Lasai ibiltzen gara, antolatu beharreko gauza asko gabe. Hurrengo eguna, berriaz, gogorra izaten da, goiz jaiki eta gauzak antolatzen hasi behar dugulako. Gainera, familiarekin ere konplitu behar izaten da. Gozatzen den pixka hori gauez egiten dugu, baina eguneko gogorra egiten da.

Aurtengo festetan, zein ekitaldi da azpimarragarriena?

Duela pare bat urte hasi ginen desafioekin eta aurten albizturtarrei bota diegu erronka. Proba desberdinak egin beharko dira frontoian: ergometroa, korrika... Ohorea jokatzeko da, baina pikea egongo da.

Bestalde, aurreko urteetan, frontenis txapelketa egin izan dugu eta aurten Frontoi Txikiko Esku Pilota Txapelketa jokatu dugu. Mistoa izango da eta neskek alde batetik eta mutilek bestetik ariko gara.

Horiez gain, edozein gonbidatuko nuke gauean egiten den zahagi ardora ere, mundiala izaten delako. Herri guztia bertan elkartzen da eta bakoitzak berea ekartzen du afaltzeko. Ardoaren aitzakian, frontoian afari ederra egiten da. Ondoren giza proba ere egiten da. Aurten, ez dira aterako Bidaniko mutilak, baina Ibarrako giza probako emakumeak idien aurka egingo dute apustua. Nahiko gogorra izango da, baina zerbait desberdina bezala hori jarri dugu.

Beraz, beritasun batzuk izango dituzue.

Bai. Pilotarena jarri dugu ekintza berri bezala eta horren finala ostiral arratsaldean jokatu da. Idien eta Ibarrako emakumeen arteko proba, berriz, ostiral gauean izango da.

Adin eta gustu desberdinetako ekintzak antolatu dituzue.

Bai. Gazteak izan arren antolatzaileak, festak guztientzat dira. Dantzariak, trikiti jaialdiak... izaten dira helduentzat eta ume jolasak, pilota txapelketak, pilota eta futbol partidak... gazteagoentzat. Ekimen desberdinak egiten dira adinaren arabera. Ez da parranda bakarrik, ikusteko gauzak ere badaude. Beraz, jendea animatu dadila Bidanira etortzera.



Larunbat arratsaldean jokatuko dute mus txapelketa. IBAN URDAPILLETA



Ia bezala, aurten ere futbol partida egingo dute. IBAN URDAPILLETA



Jende ugari elkartzen da sagardo dastaketan. IBAN URDAPILLETA

BIDANIKO FESTAK

ABUZTUAK 22, OSTEguna

15:00. Suziriak eta ezkilak.

Ondoren. Txikiteo herrikoia, trikitalariak alaiturik.

17:00. Ume jolasak.

20:00. Salbea.

21:00. Herri afaria frontoian, Unai Mendizabalek eta Oihana Iguaranek lagunduta.

Ondoren. Elizagoien ahizpak

ABUZTUAK 23, OSTIRALA

12:00. Bola eta toka txapelketa herrikoia (izen ematea 11:30etik 12:00etara) eta herriko gazteen futbol partida.

18:00. Frontoi txikiko I. binakako txapelketako finalak.

20:00. Zahagi ardoa frontoian. Ardoa, ura, ogia, intxaurrak, gazta eta irasagarra jarrita egongo dira.

22:30. Proba. Ibarako emakumeak idi parearen aurka.

Ondoren. Iratzar taldea.

ABUZTUAK 24, LARUNBATA

11:30. Meza nagusia.

Ondoren. Herriko dantzariak eta helduentzako hamaiketako Saiaz elkartean.

16:00. Mus txapelketa frontoian. Izen ematea 15:30etik aurrera.

19:00. Sagardo dastaketa.

22:30. Pilota partidak:

Exposito-Aizpuru/Elola-Elizegi.

Lau eta erdian: Unai Alberdi/Altuna.

Ondoren. Erromeria, Fan&GO taldearekin.

ABUZTUAK 25, IGANDEA

11:00. Meza nagusia

Ondoren. Herriko trikitalarien jaialdia.

18:00. Herri kirol saioa Albizturko eta Bidaniko gazteen artean.

Harri-jasotzaileak: Galarraga eta

Goenatxo III. Aizkolariak: Irazu eta Arria V.

Ondoren. Bidaniko gazteen herri kirol jaialdi mistoa.

22:30. Izer eta Alabier.



Zure iragarkia argitaratzeko:
661 67 88 18
publi@ataria.eus



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



IBARRAKO FESTAK



«HERRITAR TALDE BATEK LAN ASKO EGIN DU FESTAK ANTOLATZEKO»

NAGORE ZUBILLAGA
KULTURA ZINEGOTZIA

Eskualdean abuztuan ospatzen diren festa oparoenak dira Ibarakoak. Ume, gazte zein helduek ez dute aspertzeko tarterik izango abuztuaren 21etik 25era.

Ibarakoak dira eskualdean sona handienetakoa duten festak. Aurten ere, ekitaldiz betetako egunak dituzte aurretik gozatzeko. Nagore Zubillaga kultura zinegotziak festa parekideak, errespetuzkoak eta sexu indarkeriarik gabekoak nahi dituztela dio eta horretarako lanean aritu direla festa batzordetik eta udaletik.

Festak antolatu dituzue. Noren ardura izaten da?

Ibarran festa batzorde bat dago, urte hasieran biltzen hasten dena. Zein aurrekontu dagoen eta nolako festak nahi dituzten zehazten da eta horren arabera biltzen joaten da herritar eta eragile taldea. Beraiek hartzen dituzte erabakiak.

Ia astebeteko festak dituzue aurretik. Ez al zaizue luze egiten?

Batzuetan pixka bat bai, baina herritarrek parte hartu nahi izaten dute. Dena sartu ahal izateko bost egunak beharrezkoak dira.

Horrelako festak antolatzeak lan ugari eskatuko du, ezta?

Sartu berriak gara udalean. Nahiko osatuta zegoen dena eta azken onarpena bakarrik tokatu zaigu. Herritar talde horrek lan asko egiten du eta taldeekin edo jendearekin kontaktuan jartzen dira, festak aurrera ateratzeko.

Kultura zinegotzi izanda, zein eginbehar edukiko dituzu?

Nire aurrekoa ere bileretara joaten zen, baina ez da hainbeste udaletik bultzatzen den programa bat, baizik eta herritarrek sortzen dutena, eta guk onartu egiten dugu, ez badago kontrako ezer.

Hiru egun berezi ere edukiko dituzue: kirolarena, San Bartolome eguna eta kuadrillena.

Urtero egiten dira. Ibarra herri kirolaria da eta kirol elkarteek ere festetan parte hartzen dute. San Bartolome egun potoloa da eta Kuadrilla Eguna ere gustatzen zaigu. Horrekin biribiltzen ditugu festak, herritarrek gustura hartzen dute parte eta egun garrantzitsua da.

Adin eta gustu askotako jendea-

rentzako egitaraua daukazue prest.

Bai, saiatu gara denentzako moduko festak izaten. Aurten, bereziki nerabe talde batzuk saiatu dira programan beraien tarteak bilatzen, gauzak proposatu dizkigute eta saiatu gara beraientzat gauzak lortzen. Umeentzat ere zerbait gehiago jarri dugu eta helduentzat betiko gauzak daude, baina saiatu dira sagardo dastaketa bezalako gauza berri batzuk ere sartzen. Ikusiko dugu zein harrera daukaten. Probatzen ari gara eta ea denentzako gustukoa den.

Programa hainbat ohar zabaltzeko ere baliatu duzue.

Bai. Zezen suzkoarekin arrokek nola-baiteko arrisku bat dutela esan dugu. Festa parekideak nahi ditugula aldarrikatzeko, erasoen aurkako mezua zabaltzeko eta 47ak herrian nahi ditugula adierazteko ere erabiliko dugu programa. Gainera, larunbat gauean, sexu indarkeriaren aurkako eta drogen inguruko gunea ere egongo dira, informazioa zabalduz.

Zein ekitaldi da inork galdu ezin duena?

Nik uste dut asko daudela: gaztetxoek batzuk gustatuko zaizkie, helduagoei beste batzuk... Denetara joateko gonbidapena egingo dugu eta bakoitzak ikusiko du zein duen gustukoa. Nahiko biribila geratu zaigu programa eta gero ikusiko dugu zein den benetan merezi duena.

Aurtengo berrikuntza nagusia zein dela esango zenuke?

Berrikuntza handirik ez dago. Sagardo dastaketa da berria, soka dantzak ere urte batzuk zeramatzan galduta eta berreskuratzeko lan bat egin da, musika taldeetan ere saiatu gara berritzen eta antzerkia ere berreskuratu da. Azpimarratzekoa da aurten emakumeen pilota partida ere izango dela.

Zer esango zenieke herritarrei eta Ibarrara gerturatuko direnei?

Umore onez, errespetuz eta ondo pasatzeko gogoarekin etortzeko eta parte hartzera gonbidatzen ditugula antolatu ditugun ekitaldietan. Izan ere, gehienak parte hartzeko modukoak dira: kirolak, dantza, zezen suzkoa... Ea nola ateratzen diren, baina itxura polita daukate.

IBARRAKO FESTAK

IBARRAKO FESTAK

ABUZTUAK 21, ASTEAZKENA

11:30. XXXI. San Bartolome bozeto lehiaketako eta IV. Diseinu lehiaketako sari banaketa, San Bartolome plazan.

11:45. Haurren eta gaztetxoaren kuadrillak plazan elkartuko dira.

12:00. Jaien hasiera: Suziri jaurtiketa haur eta gaztetxoaren kuadrillen eskutik Bartola eta Bartolorekin batera.

Ondoren. Ibarako, Zizurkilgo eta Villabonako erraldioen eta buruhandien konpartsekin batera, haur eta gaztetxoaren kuadrillen kalejira herrian barrena.

Ondoren. Ibarako Merkatarien Elkartek eskainitako hamaiketako, San Bartolome plazan.

14:00. Haurren eta gaztetxoaren bazkaria San Bartolome plazan, herriko gurasoen eskutik.

16:00. Haurrentzako jokoak Txiribitu Astialdi taldearen eskutik, San Bartolome plazan.

16:00-19:00. Nerabeentzako parkea, Emeterio Arrese parkean.

18:00. Ibarako, Zizurkilgo eta Villabonako erraldioen eta buruhandien konpartsa herriko kaleetan zehar.

18:00-19:00. Sokatira lehiaketako pisaketa, San Bartolome plazan.

18:30. Sagardo dastatzea, San Bartolome plazan.

21:00. Elkartasun afaria, San Bartolome plazan.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

23:30. Ezten Giro, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 22, OSTEGUNA

KIROLAREN EGUNA

09:00. Diana herriko trikitilarien eskutik.

10:00. Haurrentzako 3x3 futbol txapelketa, Emeterio Arrese parkean Lauburu KE-ren eskutik.

10:30. Toka eta bola txapelketa, Emeterio Arrese parkean Ibarako Kirol Elkartearen eskutik.

11:00. Erretiratuentzako hamaiketako, Bizi-Nahi elkartean.

11:00. Haur eta gaztetxoentzako toka eta



bola txapelketa, Emeterio Arrese parkean Ibarako Kirol Elkartearen eskutik.

11:30. Xake gunea: Bat-bateko xake partiden erakustaldia, ikastaro txikia, xake erraldoia, eta abar, Emeterio Arrese parkean, Ibarako Xake Elkartearen eskutik.

17:30. Pilota partidak Belabietan pilotalekuan, Sendi-Ekintza pilota eskolaren eskutik: Emakumeak: Espinar-Arrillaga / Larrarte-Mendizabal. Gizonak: Labaka-Beloki / Elola-Telletxea.

18:00. Helduen danborradaren entsegua, Azkue auzoan.

19:00. Helduen danborrada Iraunkorrek txarangak alaituta.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

23:30. Nizuri Tazuneri eta Modus Operandi taldeen kontzertuak, San Bartolome plazan.

Afalostean. Helduen danborradaren kalejira herrian zehar, Iraunkorrek txarangarekin batera.

ABUZTUAK 23, OSTIRALA

09:00. Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.

11:30. Kale antzerkia, herriko kaleetan zehar, Hauspoa Kultur Elkartearen eskutik.

11:30-13:00. Haurrentzako jolas parkea.

14:30. Txekor-jatea, Emeterio Arrese parkean, Sendi-Ekintza elkartearen eskutik.

19:00. San Bartolome bezperako kanpai-jotzea eta salbea, San Bartolome elizan.

19:30. Soka-dantza, San Bartolome plazan.

22:00. Peio Ospitalen kontzertua, Emeterio Arrese parkean (Belabietan kiroldegian, euria eginez gero).

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

23:45. DJ Andoniren emanaldia, Txumitxa atzealdeko plazan.

23:45. Laketa taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 24, LARUNBATA

SAN BARTOLOME EGUNA

09:00. Diana herriko txistularien eskutik.

10:30. Meza nagusia, San Bartolome elizan.

11:30. Haurren danborrada Iraunkorrek txarangak alaituta.

12:00. Piperrak eta tomateak, San Bartolome plazan, herriko baratzezainek, Zubelzu Piparrak etxeak, Ibarlur Piparra Kooperatibak eta Txumitxak eskaini eta zerbitzatua.

16:45. Auzoen arteko sokatira lehiaketa herrikoia, San Bartolome plazan, Ibarako Sokatira Taldearen eskutik.

19:00. Bertsolarien emanaldia: Oihana

IBARRAKO FESTAK



Iguaran, Amets Arzallus, Miren Artetxe, Beñat Gaztelumendi eta Unai Mendizabal, Emeterio Arrese parkean.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

22:45. Alurr Dantza Taldearen emanaldia, Emeterio Arrese plazan.

23:00–02:00. Eraso sexistarik gabeko gunea, San Bartolome plazan.

00:00. DJ Andoniren emanaldia, erretiratuen elkartearen aurreko plazan.

00:00. Iratzar, San Bartolome plazan.

00:00–03:00. Testing programaren gunea Ai Laket elkartearen eskutik.

ABUZTUAK 25, IGANDEA

KUADRILLEN EGUNA

09:00. Diana Giroarte dultzaina taldearen eskutik.

11:45. Kuadrillak San Bartolome plazan elkartuko dira.

12:00. Kuadrilla berriari ongi etorria: Kuadrillen txupinazoa eta brindisa plazan.

Ondoren. Kuadrillen kalejira Bonberenea txarangarekin eta Giroarte dultzaina taldearekin batera.

14:15. Kuadrillen mosaikoa, Emeterio Arrese parkean.

14:30. Kuadrillen bazkaria B-eroak kuadrillak antolatuta, Emeterio Arrese parkean.

17:00. DJ Jotatxo, Emeterio Arrese parkean.

19:00–20:30. Tximeleta taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

22:30. Zezensuzkoa, San Bartolome plazan.

00:00. Lasai earren kuadrillak piperra osasun-etxetik San Bartolome plazaraino eramango du eta, ondoren erre egingo du.

00:45. Tximeleta taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

ABUZTUAK 30, OSTIRALA

10:00. Gazteentzako txirrindulari lasterketa, XXXVIII. San Bartolome saria, Ibarra Kirol Elkartearen eskutik.



**galtzaundi
taberna**

San Bartolome plaza | IBARRA | ☎ 691 080 726

**Ogitartekoak
Pintxoak
Errazioak**

Plater konbinatuak



AMEZKETAKO FESTAK



Kuadrillen bazkariaren ondoren, joko poteoa egingo dute. IMANOL GARCIA

30

AMEZKETAN EZ DA FESTARIK FALTAKO

San Bartolomeetan ospatuko dituzte jaiak euliek. Musikaz, kirolez eta umorez beteko dira Amezketako kaleak abuztuaren 22tik 26ra. Aurreko urteetako egitarau antzekoa izanda ere, berrikuntzaren bat sartu dute.

Amezketako festek badute sona, eta ez da gutxiagorako. Aurten ere, gustu guztietarako ekitaldiak dituzten lau egun dituzte aurretik.

Indartsu hasiko dituzte festak Kuadrillen Egunarekin. Eulia agurtu eta txupinazoa bota aurretik, XVIII. Pilota Txapelketa Herrikoiairen finalak jokatuko dituzte. Behin festa lehertuta, kuadrillen bazkaria egingo dute. Arratsaldean, berriz, umorea nagusituko da photocallarekin eta joko poteoarekin. Festan jarraitzeko zahagi ardoa egongo da eta udalak sagardoa jarriko du. Ondoren, argazki muntaiaren emanaldia egingo dute eta bingoa egingo da. Goizaldera arte parrandan jarraituko dute DJ Goizalderarterekin.

Ostiralean, etxeko txikienak izango dira protagonista. Puzgarriak eta jolasak izango dituzte goizean nahiz arratsaldean eta bapo bazkalduko dute,

Zazpi-itturri elkartean. Gainera, *Zirika* ikuskizuna ikusiko dute. 18:00etan nesken arteko pilota partidak jokatuko dituzte eta horiek amaitzean, buhundi eta txistulariak kalejiran ibiliko dira. Tradizioari segituz, zahagi ardoarekin afalduko dute eta udalak jarriko ditu ogia, ardoa, gazta eta kafea. Afalostea alaitzearen ardura Antsorregi, Larrañaga eta Elizagoien ahizpen eskuetan egongo da, eta atsedena hartu bitartean, bingoa egingo da.

Larunbatean ere goizean goizetik hasiko da festa. 10:00etan diana izango dute eta mezaren ondoren, herriko gaztetxo eta haurrek herri kirolak egingo dituzte. Eguerdian, txakolina dastatuko dute eta janaria norberak eraman beharko badu ere, udalak parrilak piztuko ditu. Bazkalondoren, Tio Teronen semeak dantza taldeak *Freshcool* ikuskizuna eskainiko du. Umoreak hartuko du Amezketan

19:00etan egingo den mozorroren desfilearekin eta sari banaketarekin. Bi kategoriatan banatuko da lehiaketa. 16 urtetik beherakoetan, lehenengo saridunak 75 euro jasoko ditu, 50 bigarrenak eta 25 hirugarrenak. 17 urtetik gorakoetan, berriz, 150 euro eskuratu-



Herriko haur eta gaztetxoek egingo dituzte herrikirolak. IMANOL GARCIA

ko ditu lehenengoak, 100 bigarrenak eta 75 hirugarrenak. Ondoren, punta-puntako bertsolarien saioa izango da Maialen Lujanbio, Jone Uria, Alaia Martin, Bixente Gorostidi, Angel Mari Peñagarikano eta Iñigo Gorostartzekin. Gai jartzaile lanetan Imanol Artola *felix* ariko da. Parranda gogoz dagoenak aukera izango du 23:30ean hasiko den Obaneukeren kontzertuarekin. Aurreko egunetan bezala, atsedendian bingoa egongo da.

Igandeko ajea errazago pasako zaie 12:00etan plazan egingo den moto trial ikuskizunarekin. Gero, lehiari sartuko dira, paella onena nork prestatuko. Banatuko dituzten sariak ez dira nolanahikoak izango. Lehenengoak 150 euro jasoko ditu, 100 bigarrenak eta 75 hirugarrenak. 17:00etan herriko gaztetxoek musika eta dantza emanaldiak izango dira, eta festei parrandan emango diete amaiera. Horretarako, sagardo dastaketa, Fan&GO taldearen kontzertua, euliaren entierroa eta bingoa nahiz guraso elkartearen aldeko zozketa egingo dituzte.

Autobus zerbitzuak Tolosara

Parranda egin ostean Tolosara itzuli nahi dutenentzat autobusak ere egongo dira Amezketatik. Abuztuaren 22an 02:30ean eta 04:30ean abiatuko dira autobusak. Abuztuaren 24an, 00:00etan, 01:30ean, 03:00etan eta 04:30ean.

AMEZKETAKO FESTAK

ABUZTUAK 22, OSTEGUNA KUADRILLEN EGUNA

10:30. XVIII. Pilota Txapelketa Herrikoiairen finalak, frontoi zaharrean.

13:30. Euliari agurra eta txupinazoa.

14:30. Kuadrillen bazkaria, Larrunarri pilotalekuan.

Segidan. Photocall eta joko poteoa.

21:00. Zahagi ardoa eta udalak sagardoa jarriko du.

Ondoren. Argazki muntaiaren emanaldia.

22:30. Tximeleta taldearekin dantzaldia plazan.

Atsedendian. Bingoa plazan.

Ondoren. DJ Goizalderarte.

ABUZTUAK 23, OSTIRALA

UMEEN EGUNA

10:30-13:30. Puzgarriak eta jolas gehiago eskoletan.



laz, lehen aldiz jokatu zituzten emakumeen arteko pilota partidak. IMANOL GARCIA

14:00. Umeen bazkaria, Zazpi-itturri elkartearen.

15:00-17:00. Puzgarriak eta jolas gehiago eskoletan.

17:15. Zirkak ikuskizuna, plazan (eguraldi txarra bada, Altuna anaiak frontoian).

Ondoren. Haurrentzako merienda.

18:00. Nesken arteko pilota partidak, Larrunarri pilotalekuan.

19:30. Kalejira buruhandi eta txistulariekin.

21:00. Zahagi ardoa (udalak ogia, ardoa, gazta eta kafea jarriko ditu).

23:00. Antsorregi eta Larrañaga eta Elizagoien ahizpekin erromeria goizaldera arte.

Atsedendian. Bingoa plazan.

ABUZTUAK 24, LARUNBATA SAN BARTOLOME ETA MOZORRO EGUNA

10:00. Herrian zehar diana txistulariekin.

11:00. Meza nagusia, San Bartolome elizan.

12:00. Herri kirolak plazan, herriko haur eta gaztetxoek eskainita.

13:30. Txakolin dastaketa (udalak parrila piztuko du eta jatekoa norberaren kontu).

18:00. Tio Teronen semeak dantza taldearen *Freshcool* emanaldia, Beltzaren plazan.

19:00. Mozorroaren desfilea eta sari-banaketa plazan.

22:30. Bertso saioa, Altuna anaiak frontoian: Maialen Lujanbio, Jone Uria, Alaia Martin, Bixente Gorostidi, Angel Mari Peñagarikano eta Iñigo Gorostartzu. Gai jartzailea: Imanol Artola, *felix*.

23:30. Obaneuke taldearekin dantzaldia plazan.

Atsedendian. Bingoa.

ABUZTUAK 25, IGANDEA

12:00. Moto trial ikuskizuna, Beltzaren plazan.

13:00. Paella lehiaketa, Larrunarri pilotalekuan.

14:30. Sari banaketa.

17:00. Herriko gaztetxoek musika eta dantza emanaldiak, frontoi zaharrean (Eguraldi txarrekin, Altuna anaiak frontoian).

20:30. Sagardo dastaketa plazan.

22:30. Fan&GO taldearekin dantzaldia.

00:00. Euliaren entierroa (lutoa ez ahaztu).

Ondoren. Bingoa eta Akelok guraso elkartearen aldeko zozketa.



BERROBIKO FESTAK



Haurrek eta gaztetxoek egitarau zabala dute aurretik. JOSU ARTUTXA

HAURRAK ZEIN HELDUAK FESTA GOGOZ DAUDE

32

Eskualdean abuztuan ospatuko diren azkenak izanda ere, ez dira atzean geratuko Berrobiko San Agustin festak. Egun handiarekin hasiko dira eta irailaren 1era arte luzatuko dituzte. Bost egunean, ez da aspertzeko tarterik egongo.

Abuztuaren 28an iritsiko dira berrobitarrak urte osoan zain egon diren egunak. Orduan hasiko dira San Agustin festak eta irailaren 1era arte luzatuko dira.

Ibin kirol elkartearen eskutik lehortuko da festa, beraiek izango baitira txupinazoa botatzearen arduradunak. Festak lasai hasiko dituzte Gorriti eta bere animaliekin, sagardo dastaketa-ekin eta Izer eta Alabierrekin.

Hurrengo egunean, martxa hartzen joango dira. Erretirodunek hartuko dute protagonismoa eta meza, bazkaria eta dantzaldia izango dituzte. Ondoren, haurrei pasako diete lekukoa eta herri guztia jolasean jarri ostean, merienda nahiz apar festa edukiko dituzte. Festen antolatzaileek bainujantzia eramateko gomendioa egin dute. Aparretan blai ibili eta gero, herritarrek nahiz Anoetako Anitz taldekoak dantzan jarriko dira.

Ondo deskantsatuta, arratsaldean ekingo diote festari ostiralean. Burohandi eta erraldioen aurretik korrika ariko dira txikienak eta Iriarte jate-txearen eskutik ederki afalduko dute eskolako estalpean. 00:30ean Maria-txi doinuek hartuko dute Berrobi eta ondoren, DJ Josu musika jarriko du parranda gogoz dagoenarentzat.

Batzuk aurreko eguneko ajea pasatzen egongo diren arren, festa egun bete-betea izango da larunbata. Haurrek zaldi gaineen paseoa eta ur jolasetan igaroko dute goiza. Eguerdia aldera, Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso bertsotan ariko dira herrian barrera. Jarraian, bazkaltzeko bi aukera egongo dira. Alde batetik, paella lehia-keta eta kuadrillen arteko bazkaria egingo dituzte, eta beste aldetik, Bide Ona elkartearen bertso bazkaria antolatuko dute. Arratsaldean, Berrobi eta El-duain nor baino nor gehiago arituko dira herri kiroletan. Bezperan parran-

da gosez geratu zenak aukera bikaina izango du larunbatean ere, McOnak eta Muxutruk taldeek kontzertuak emanango baitituzte.

San Agustin jaien azken egunean ere ez da aspertzeko betarik egongo. Umeek rodomomoa eta arku tiraketa probatuko dituzte frontoian eta kar zirkuitua edukiko dute eskolako estalpean. Batzuk jolasean ari diren bitartean, besteek pilotaz gozatuko dute. Hiru partida izango dira ikusgai. Alde batetik, herriko gaztetxoek jokatuko dituztenak. Bestetik, Otaegi eta Arteaga, Aramendi eta Mendiluzeren aurka arituko dira. Azkenik, Urbieta I eta Urbieta II, Zubiria eta Telletxearen kontra lehiatuko dira. Eguna dantzan amaituko dute Petti kantautorearen emanaldiarekin eta Malkogarriyak taldearen erromeriarekin. Zahagi ardoa izango da festetako azken ekitaldia. Mahaiak eta aulkiak bertan egongo dira eta norberak eraman beharko du bere afaria.



Jan-edanera aukera ugari egongo da egun guztietan. **JOSU ARTUTXA**



Buruhandi eta erraldoien aurretik korrika ibiliko dira txikiak. **I. G. L.**

BERROBIKO FESTAK

ABUZTUAK 28, ASTEAZKENA

10:30. Txupinazoa Ibin Kirol Klubaren eskutik.

11:00. Meza.

12:00. Gorriti eta bere animaliak.

18:00. Sagardo probaketa, Izer eta Alabier trikitilariak lagunduta.

22:00. Trikipoteoa, Izer eta Alabierrekin.

ABUZTUAK 29, OSTEGUNA

09:00. Erroizpera mendi irteera.

12:30. Erretirodunen aldeko meza.

Ondoren. Toka txapelketa.

Jarraian. Erretirodunen bazkaria eta dantzaldia.

17:00. Herriar guztientzat jolasak.

17:30. Haur eta gaztetxoentzako merienda.

19:00. Apar festa.

22:30. Dantza emanaldia, herriko

dantzarien eta Anoetako Anitz taldearen eskutik.

ABUZTUAK 30, OSTIRALA

18:45. Buruhandiak eta erraldoiak.

20:30. Herri afaria eskolako estalpean, Iriarte jatetxearen eskutik.

00:30. Puro Relajo: Mariatxi doinuak eta abestiak.

Ondoren. DJ Josu.

ABUZTUAK 31, LARUNBATA

11:00. Zaldi paseoak, beheko bideetan.

11:30. Ur jolasak.

13:00. Herrian zehar bertsotan arituko dira Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizaso.

14:00. Paella lehiaketa eta kuadrillen arteko bazkaria. Sagardoa, ardoa eta ura doan. **Bitartean.** Bide ona elkartean bertso bazkaria, Aitor Mendiluze eta Sebastian Lizasorekin.

18:00. Herri kirolak: Berrobi eta Elduainen arteko desafioa.

23:00. McOnak taldearen folc-rock kontzertua.

Ondoren. Muxutruk taldearekin erromeria.

IRAILAK 1, IGANDEA

11:00. Meza.

11:00. Arku tiraketa eta rokodromoa frontoian. Kart zirkuitua eskolako estalpean.

12:00. Pilota partidak: Herriko gaztetxoaren arteko partidak, Otaegi-Arteaga / Aramendi-Mendiluze eta Urbietak-Ubietak II / Zubiria-Telletxea.

18:00. Petti kantautorearen emanaldia.

Jarraian. Malkogarriyak taldearen erromeria.

21:00. Zahagi ardoa. Bakoitzak bere afaria eraman beharko du.

MERKEALDIA
VARILUX SOLUTIONS-en

ZURE 2. LENTE PROGRESIBOAK

BARNE



VARILUX®



Gure betaurreko guztiak
bilduma berrietakoak dira

R.P.S. 175/15 I.L.G.



Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainen ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

San Frantzisko, 23
Tel.: 943 69 84 70
TOLOSA

MULTIOPTICAS
lehena zerbitzu optikoetan

www.multiopticasgipuzkoa.com



UZTAILEKO ETA ABUZTUKO AGENDA

FESTAZ GAIN ERE, BADAGO ZER EGIN

Festaz festa ibiltzeko aukera aparta dago uztailearen amaieran nahiz abuztuan. Hala ere, bestelako planak nahiago dituztenentzat ere, ez da aspertzeko betarik izango.

TOLOSA

UZTAILAK 27, LARUNBATA

12:00-14:00. Tolosa kantari, M. Luisa Agirre doktorearen klean hasita.

UZTAILAK 29, ASTELEHENA

22:30. Larramendin, *Campeones* filma ikusteko aukera izango da aire librean.

ABUZTUAK 8, OSTEGUNA

20:00. Organo kontzertua, Santa Maria Parrokian, Ignacio Arakistainen, Xabier Urtasunen eta Mikel Ansolaren eskutik.

ABUZTUAK 19, OSTEGUNA

18:00-20:30. Odolateratzea, Kultur Etxeko Topagunea gelan.

IRAILAREN 6RA ARTE

Iran Ezkutua erakusketa. Iraniar LGTBI komunitateari buruzko istorio desberdinetan oinarritzen den Ura Iturralderen argazki erakusketa da Gernikako Arbolan dagoena.

IRAILAREN 15ERA ARTE

10:00-14:00/15:00-19:00. *Speeltheater* Holanderakusketa, Topic-en.



III. EUSKAL HERRIA TXAPELKETAREN FINALA

Realaren eta Eibarren gizonetzkoen taldeek III. Euskal Herria Txapelketaren finala jokatuko dute, abuztuaren 10ean, Tolosako Berazubi estadioan. Partida 20:30ean hasiko da eta sarrerak Internetez erosi beharko dira, www.enterticket.es webgunean. Tribunan eserita ikusteko, hoguei euro ordaindu beharko dituzte helduek eta hamar euro hamasei urte artekoek. Zutik, zelai inguruan ikustek, berriz, hamar euroko prezioa izango du helduentzat eta bost eurokoa hamasei urtez azpikoentzat. ATARIA




www.zelai.es

T 943691555 • M 672712731
Benta Aldea Industrialdea, 12.
20270. Anoeta. Gipuzkoa.

Abuztuan ere jarraitu
eskualdeko albisteak
ataria.eus-en!

Eskualdeko albiste
guztiak, argazki
galeriak, bideoak,
jai egitarauak...



www.ataria.eus • 107.6 fm

Audi Teknikaren abangoardian.

Nork itxaron nahi du bihar arte?



Audi Q5, hilean 290 eurotik*

Audi Garaia da, uztailaren 1etik 31ra bitarte.

Gauza batzuegatik itxaron egin behar da, baina, Audi Q5 bat hilean 290 euroan*, sekulako rentingarekin eta zerbitzu guztiak barne izategatik, ez.

Autowag Tolosa

Usabal industrialdea, z/g
20400 Tolosa
Tel. 943 67 35 81

Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic. CO2 igorpenak (g/km): 189-200 (NEDC: 144-146). Kontsumoa (l/100 km): 7,2-7,6.

* Audi Financial Services-en eskaintza, Audi Q5 Advanced 35 TDI quattro 120 kW (163 CV) S tronic batentzat kalkulatuta, 36 hilabete eta 45.000 kilometroko renting kontratu batekin, 7.296 euroko diru sarrera eginez, Volkswagen Renting S.A.ren bidez. Kuotak eta hasierako diru-sarrerak ez dute BEZa barne. Gurpil aldaketa ez dago eskaintzan txertatuta. Audiren Sare Ofizialeko mantentze eta higadura zerbitzu guztiak, bermea (matxura konpontzea), arrisku orotarako frankiziarik gabeko eta bideko laguntzadun aseguruia barne. Beste bertsio eta ekipamendu batzuetarako, egin kontsulta zure Audi Kontzesionario Ofizialean. 2019/06/30era bitarteko eskaintza, stockean dauden unitateentzat. Audi Financial Services Volkswagen Finance S.A. EFC-k komertzializatutako marka bat da. Ikusgai den modeloa ez dagokio eskaintzari.